

# Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia. Lehen Mailako Arreta



*...espazioa komunitatean,  
osasuna sortzeko sustraiak*





**ARGITARALDIA**

Lehenengoa, 2023ko otsaila

**ARGITARATZAILEA**

Osakidetza. Araba kalea 45  
01006 Vitoria-Gasteiz (Araba)

©

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioa  
Osakidetza

**INTERNET**

[www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus)

**E-MAILA**

[coordinacion@osakidetza.eus](mailto:coordinacion@osakidetza.eus)

**LEGE-GORDAILUA**

BI-1353-2023

Osasuna  
ikuspegi komunitariotik  
lantzeko estrategia.  
Lehen Mailako Arreta

*...espazioa komunitatean,  
osasuna sortzeko sustraiak*

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b>	<b>8</b>
<b>Lantaldeak</b>	<b>10</b>
<b>Sarrera</b>	<b>15</b>
<b>Justifikazioa eta kontzeptu-esparrua</b>	<b>19</b>
<b>EAE-ko arreta komunitarioaren historia laburra, osasun-sektorearen ikuspegitik</b>	<b>27</b>
<b>Marko estrategikoa eta testuingurua</b>	<b>33</b>
<b>Misioa, ikuspegia eta balioak</b>	<b>38</b>
<b>Helburu orokorrak eta operatiboak</b>	<b>40</b>
<b>Estrategiaren funtsezko elementuak</b>	<b>43</b>
<b>Jarduteko ildo estrategikoak</b>	<b>53</b>
1. ILDO ESTRATEGIKOA: Osakidetzako osasun komunitarioko strategiaren gobernantza, organigrama eta koordinazio-mekanismoak. Figurak, egitura eta gobernantza	<b>54</b>

2. ILDO ESTRATEGIKOA: LMAUen abiapuntuko egoera aztertzea, lanketa komunitarioari dagokionez (barne-eskaintza eta baliabide komunitarioak)	63
3. ILDO ESTRATEGIKOA: Orientazio komunitarioa hiru mailetan bultzatzea lehen mailako arretatik	68
4. ILDO ESTRATEGIKOA: Lehen mailako arretatik osasunari ikuspegi komunitariotik heltzeko estrategiak sustatutako helburuak eta ekintzak zabaltzea	80

---

<b>Estrategiaren ekintzak garatu eta ezartzeko kronograma</b>	<b>85</b>
---	-----------

---

<b>Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategiaren ebaluazioa</b>	<b>89</b>
--	-----------

---

<b>Funtsezko kontzeptuak</b>	<b>103</b>
------------------------------	------------

---

<b>Glosarioa</b>	<b>111</b>
------------------	------------

---

<b>Bibliografia</b>	<b>119</b>
---------------------	------------

---

<b>Eranskinak</b>	<b>125</b>
-------------------	------------

---

# Aurkezpena

---

Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren (LMAKZ) lan-ildoetako bat da Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Unitateetatik (LMAU) osasuna ikuspegi komunitariorik lantzea.

Estrategia hori Osakidetzan herritarrak osasunean ahalduntzeko estrategiarekin lerrokatuta dago, eta biak pertsonen eta komunitatearen parte-hartzera bideratutako jarduera-esparru batean aurkezten dira, non pertsonen osasunaren eta haren baldintzatzaileen gaineko kontrol handiagoa duten.

“Osasunerako aktiboak” eta “osasun positiboa” kontzeptuek errazak eta eskuragarriak egin nahi dituzte osasuna sortzen duten aukerak, eta baita ongizatera, hazkundera eta zahartze osasungarrira bideratzen direnak ere. Komunitate bakoitza, berez, talentu, interes, esperientzia, trebetasun eta baliabideak dituen osasun-eragile bat da, aukera-katalogo baliotsu bat osatzen duena.

Lehen Mailako Arretako (LMA) profesionalek gaitasun handia dute eguneroko osasun-gaixotasun prozesu konplexuak ebazteko eta zainketak emateko. Gaur egungo erronka da osasuna ikuspegi komunitariorik lantzea, modu sendo eta ekitatiboan, beste eragile eta aktibo batzuekiko erantzunkidetasunean oinarrituta (Osasun Publikoa-OP, udala, hezkuntza, foru aldundia eta herritarrak, besteak beste). Lan komunitarioa gauzatzeko, ezinbestekoa da Osakidetzako Lehen Mailako Arretaren eta OPko eskualdeko eragileen arteko benetako koordinazioa tokiko eremuan.

Hemendik, gure esker ona eta aitortza helarazi nahi diegu urteetan zehar Osakidetzako erakunde sanitarioetatik osasuna sustatzeko jardueren buru izan diren eta osasun komunitarioa bultzatu duten eta oso motibatuta egon diren profesionaleri. Erreferente komunitarioak edota hainbat profiletako profesionalak dira LMAUetan bertan lan egiten dutenak, eta haiekin lanean jarraituko dugu estrategia hau garatzeko eta jarraitutasuna bermatzeko.

Lan-esparrua, antolaketa-egitura eta osasuna sustatzeko jarduerak LMAUen zerbitzu-zorroan integrazeko prozesuan aurrera egiteko aukera eskaintzen du estrategia horrek. Era berean, baliabide berriak gehitzen ditu, profesionalen egitura finkatzeko, zeinaren bidez osasunaren ikuspegi komunitarioaren lanketa indartuko den, eta ezagutzak eta trebetasunak herritarrekin eta beste eragile eta erakunde batzuekin lotzea erraztuko den.

# Lantaldeak

## ESTRATEGIAREN ZUZENDARITZA

### **Susana Martín Benavides**

Osakidetzako Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea.  
Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

## ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

### **Víctor Bustamante Madariaga**

Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko zuzendaria. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Inmaculada Moro Casuso**

Erizaintzako zuzendariordea-aholkularia. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza.  
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Itziar Larizgoitia Jauregui**

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

### **Koldo Cambra Contin**

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

## KOORDINAZIO- ETA ERREDAKZIO-TALDEA

### **Andoni Arcelay Salazar**

Integrazio Asistentzialaren eta Kronikotasunaren Zerbitzua. Asistentzia Sanitarioko  
Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Arrate Iturralde Pinedo**

Erizain espezialista Familia eta Komunitateko Erizaintzan. Lehen Mailako Arreta  
Koordinatzeko Zuzendariordea. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza.  
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Clara Val Martínez**

Erizain espezialista Familia eta Komunitateko Erizaintzan. Lehen Mailako Arreta  
Koordinatzeko Zuzendariordea. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza.  
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Igor Zabala Rementeria**

Integrazio Asistentzialaren eta Kronikotasunaren Zerbitzua. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Itsaso Martínez Aranberri**

Erizain espezialista Familia eta Komunitateko Erizaintzan. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

## **BERRIKUSKETA- ETA LAGUNTZA-TALDEA**

### **Begoña Belarra Telleche**

Osakidetzako Osasun Eskolako arduraduna. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Irene Duo Trecet**

Paziente Bizia-Paciente Activo programaren koordinazioa Donostialdeko ESian. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **Lourdes Ochoa de Retana García**

Paziente Bizia-Paciente Activo programaren arduraduna. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

### **María del Puy López Zabarte**

Osakidetzako Osasun Eskolako arduraduna. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

## **KONTRASTE-TALDEAK, ZEINEKIN ESTRATEGIA PARTEKATU DEN, EKARPENAK EGITEKO**

### **Josune Tutor Ercilla, Elena Uria Etxebarria, Ana Porta Fernández, M<sup>a</sup> Luz Peña González**

Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

**Laura García Álvarez, Sonia Navarro del Cabo, Roberto Abad García,  
Lucía Garate Echenique**

Erizaintzako Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza.  
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

**Ana Bellosta Pueyo, Ana Román Frías, Begoña Olascoaga Luengo,  
Camino Aragón Aller, Carlos Canga Gutierrez, Cristina Muñoz Santos,  
Cristina Rojo García, Elena Fernández Sánchez, Elena Ramos Gil,  
Elisa Freile De la Varga, Esther Cordero Pulido, Francisco Díez Toré,  
Inés Blanco Regodón, Iranzu López de Zubiria Platero, Isabel Palacios  
Valladares, Itziar Llarena Camacho, Izaro Bilbao Madariaga,  
Judit Aldeguer Corbi, Lara Alonso Santiago, Laura Fernández Cano,  
Laura Martín Sánchez, Lidia González Zabala, Livia Llorca Santana,  
Melissa Sánchez, Nora Tapia Alonso, Nuria Villafañez Roldán,  
Olga Corral Rodríguez, Paula Pellico Herrero, Ramón Sánchez-Garrido  
Campos, Raúl Álvarez Celada, Raúl San Román De la Puente,  
Rocío García González, Sergio Girón Castellanos, Sonia González Martínez,  
Victoria Díaz Ovies**

Erizain espezialistak Familia eta Komunitateko Erizaintzan.  
Euskadiko Zaintza eta Arakatzeko Sareko kasu eta kontaktuen erizain kudeatzaileak

**Jose Antonio de la Rica Giménez**

Arreta Soziosanitarioko zuzendaria. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza

**Beatriz Nuin González, Yon Sorrarain Odriozola, María Blanco Egaña,  
Francisco Borja Cirarda Larrea**

Osasunaren sustapena. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

**Itziar Vergara Mitxelorena, Álvaro Sánchez Pérez, Naiara Parraza Díez**

Lurraldeko Ikerketa Institutuak. Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza.  
Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

**Ana Gorroñoitia Iturbe, Sheila Sánchez Gómez,  
Eulalia Mariñelarena Mañeru**

Euskadiko Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalak.  
Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza. Asistentzia Sanitarioko  
Zuzendaritza. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

**Rosa Herrero Simón, Kizkitza Alustiza Urteaga,  
Isabel Ibáñez Ruiz de Arcaute**

Osasunerako tokiko sareetan parte hartzen duten LMAUko osasun-profesionalak

**Iratxe Salcedo Pacheco, M.<sup>a</sup> José Goñi Agudo, Beatriz Cubeiro López,  
Sheila Sánchez Gómez, Mónica Moreno Martín, Agurtzane Paskual Uribe,  
Ronald Rodríguez Cogollo, Oscar Vázquez Pedrosa,  
M.<sup>a</sup> Jesús Pérez de Arenaza Iturrospe, Gotzon Villaño Murga,  
Carlos José Pereira Rodríguez, María Eugenia Alkiza Eizaguirre,  
M.<sup>a</sup> Carmen Rodríguez Rodríguez, Josu Xabier Llano Ernaiz,  
María Luz Jauregui García, Nagore Arce Arana, Ana Rosa Francisco Pérez,  
Álvaro Iruin Sanz, Itziar Larrea Arechabaleta, Asier Léniz Rodríguez,  
Rosa Domingo Malvadi, Oscar Aller García, Ana Errasti Muguruza**

Osakidetzako Osasun-Erakundeetako arreta komunitarioko Erreferenteak

**Maitena Monroy Romero**

Fisioterapeuta, genero-ikuspegia. Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratua (ESI)

**Lamiaran Uriarte Larrea, Miguel Ángel Moral Manso,  
Julián Javier Ollo Jakoisti**

Espetxeetako osasun-profesionalak

Familia eta Komunitate Medikuntzako Euskal Elkarte (OSATZEN)

Euskadiko Familiako eta Komunitateko Erizaintzaren Zientzia Elkarte (EFEKEZE)

Osakidetzako Arreta Integratuko Zuzendaritzak eta Koordinazioak

Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuetako Erizaintzako Zuzendaritzak

**Maribel Romo Soler**

Kalitateko zuzendariordea. Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

**Mikel Sánchez Fernández**

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria. Osasun Saila.  
Eusko Jaurlaritza

**Usua Mediavilla Ereño**

Prensa eta Komunikazioko arduraduna (Osasungintza). Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza





# Sarrera

Estrategia honen ardatza da zerbitzu sanitarioen orientazio komunitarioa indartzea osasuna sustatzeko, 2023-2030eko Osasun Plan berriak eta Osakidetzaren 2023-2025eko Plan Estrategikoak proposatzen duten Marko Estrategikoaren baitan.


Lehen mailako arretako taldeek, Osasun Publikoko eskualdeekin koordinatuta, Osasun Komunitarioa beren Oinarrizko Osasun Eremuetan (OOE) landu ahal izateko jarduteko esparru bat planteatzen du. Esparru horretan, oinarrizko jarduerak egiten dira, hala nola osasuna sustatzeko sektore bakarreko jarduerak, baina baita jarduera konplexuak ere, esate baterako **osasun komunitarioko prozesuak**.

Estrategiaren beharra justifikatzen duten premisa batzuk dira:

- Baldintzatzaile sozialek (pertsonek zer baldintzatan jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren) eragin handia dute herritarrek jasaten dituzten ohiko osasun-arazoetan. Horregatik, ezinbestekoa da esku-hartze multisektoriala, osasun-sistemaren eskumen-esparrutik harago, eta jarduera horien guztien eraginkortasuna areagotu egiten da tokiko komunitateen parte-hartzearekin. (1, 2).
- Biztanlerian ohikoenak diren arazo eta ondoez gehienek faktore anitzeko jatorria dute, eta ez bakarrik osasun-sistemek eragindakoa. Beraz, diziplina anitzetan eta sektore artean landu behar dira, eta beharrezkoa da tokiko eremuan dauden gainerako zerbitzuekiko koordinazioa sustatzea (3).
- Osasun komunitarioa oso garrantzitsua da osasunaren desberdintasun sozialak murrizteko eta osasuna sustatzeko estrategiak eraginkortasunez ezartzeko (4).
- Arreta komunitarioa, prebentzio- eta sustapen-jarduerak eta Osasunerako Heziketa (OH) Lehen Mailako Arretako Zerbitzuen Oinarrizko Zorro Komunaren parte dira (5).
- Ekintza komunitarioa indartzea osasunaren sustapenaren eremuko lan-arlo garrantzitsuenetako bat da. Egiaztatu da herritarren benetako parte-hartze zehatza eraginkorra dela osasun-lehentasunak ezartzeko, erabakiak hartzeko eta osasun-maila hobea lortzeko plangintza-estrategiak prestatu eta abian jartzeko. Prozesu horren indar eragilea komunitateen benetako boteretik dator, beren motibazio, xede eta etorkizuneko asmoen gainean duten kontroletik (6).

- Komunitatea bera osasun-eragile eta gaixotasunen aurkako babes-faktore izan daiteke. Osasun-sistema komunitaterantz birbideratzea osasuna sustatzeko ildo estrategiko bat da, eta, gainera, osasunaren baldintzatzaile sozialei heltzeko aukera ematen du (6).
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeak erantzun erreala ematen du, zerbitzua jasotzen duen biztanleriaren premietara eta baliabideetara hobeto egokitzen dena, pertsona/familia bere ingurunean kokatzen duena eta laguntza-loturak sortzea sustatzen duena (4).

Eskema honek dokumentu hau egiteko jarraitu den lan-metodologia erakusten du:



**...OSASUNARI IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK HELTZeko ESTRATEGIA LEHEN MAILAKO ARRETAN.**






## Justifikazioa eta kontzeptu-esparrua

**Osasun komunitarioa** pertsonen eta taldeen osasunaren **adierazpen kolektiboa** da, komunitate jakin batean. Pertsonen ezaugarrien, familien ezaugarrien, eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-ingurunearen ezaugarrien arteko interakzioak finkatzen du, bai eta osasun-zerbitzuek eta faktore sozial, politiko eta globalen eraginak ere, hau da, osasunaren baldintzatzaile sozialek (7).

**Osasun komunitarioak tokiko eremuan** du bere espazioa: auzoan, herrian edo udalerrian, pertsonen osasunaren ikuspegi indibidual hutsetik haratago (8). Osasunaren dimentsio soziala da abiapuntua; izan ere, ulertzen da osasun- eta gaixotasun-prozesu askok jarduera kolektiboak behar dituztela, osasungintza hutsaz harago, norbanakoaren jokabideetan eta trebetasunetan eragiteko eta pertsonen ingurunea eta bizi-baldintzak hobetzeko.

**Eremu komunitario** horretan, osasun-zentroa eta OPko egiturak pertsonen osasunean eta ongizatean laguntzen duten eragile garrantzitsu gisa erlazionatzen dira, biztanleriaren osasun-behar indibidualez gain, komunitate bakoitzaren osasun-premiei heltzeko aukera emango dien lan-ikuspegi bat hartzeko, herritarrak eta gizarte-erakundeak protagonista izanik.


Hauetako komunitate bat osatzen duten protagonistak (9):



**1. IRUDIA:** GEUK EGINA, KOMUNITATE BATEN ONGIZATEAREN PROTAGONISTETAN OINARRITUTA. LA INTERVENCIÓN COMUNITARIA\_ FORMACIÓN COMUNIDAD 2016, MARCHIONI M. MORÍN RAMIREZ L. (9).

Osasuna, neurri handi batean, pertsonak jai, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren zirkunstantzien mende dago (1,2). Gizarte-zirkunstantzia horiei **osasunaren baldintzatzaile sozialak** deritze, eta oso onartuta dago gaixotasun, ondoez eta zerbitzu sanitarioei kontsulta egiteko arazo gehienetan dauden faktoreak direla.


Hainbat eredu teorikok azaltzen dute faktore horien eragina osasuna mantentzeko edo lehengoratzeko baliabideetarako eta aukeretarako irisgarritasunean, bai eta osasunarekin lotutako jokabideetan eta dauzkagun trebetasunetan eta baliabideetan, aurre egin behar diogunean bizi-trantsizio bati, gaixotasun bati edo beste pertsona baten zaintzaz arduratu behar izateari (10, 11).



**2. IRUDIA:** OSASUN ARLOKO DESBERDINTASUNAK MURRIZTEKO BATZORDEAK HAUTATUTAKO EREDUA (11), EGOKITZAPEN BAT DA, BESTE EREDU HAUETAN OINARRITUTA EGINDAKOA: OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAREN (OME) OSASUNAREN GIZARTE BALDINTZATZAILAEN BATZORDERAKO ORIELLE SOLAR, ALEC IRWIN ETA VICENC DE NAVARROK PROPOSATUTAKO EREDUAK.

Desberdinkeria-ardatzek osasun ona izateko aukerak zehazten dituzte, eta agerian uzten dute boterearen, osperearen eta baliabideak eskuratzeko aukeraren ondoriozko osasun-desberdinkeriak daudela, eta onura gehiago dituztela gizarte-klase pribilegiatuetako pertsonak, gizonak, arraza zuriko pertsona gazte eta helduak eta eremu geografiko aberatsagoetakoak.

Hona hemen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleen osasunean desberdinkeriak sortzen dituzten baldintzatzaile sozialen eraginaren adibide zehatz batzuk, EAEko 2018ko Osasun Inkestaren emaitzetatik lortuak (12):



**3. IRUDIA:** EAEKO OSASUN-INKESTATIK ATERATAKO DATUAK. 2018 (12)

Duela 40 urte baino gehiago, **Alma-Atako Adierazpenean (1978)**, (13) OMEk eta Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtzak (UNICEF) antolatutako Osasunaren Lehen Mailako Arretari buruzko Nazioarteko Lehen Konferentzian, definitu ziren jada Lehen Mailako Arretaren printzipio inspiratzaileak; komunitateek beren osasuna garatzeko duten parte-hartzearen eta erantzukizunaren garrantzia, pertsonak funtsezko subjektu gisa osasun-prozesuetan, eta osasun-arreta pertsonen testuingurutik eta bizi-baldintzetatik abiatuta emateko beharra (14).

Aaron Antonovskyyk 70eko hamarkadaren amaieran aurkeztu zuen **salutogenesiaren teoriak** ulertu eta aztertu nahi du zer desberdintasun dagoen bizitzara ondo egokitzen diren pertsonengan, nahiz eta zoritxarreko egoerak bizi izan. Gaur egun OParen eta osasunaren sustapenean esparruan aplikazio garrantzitsuak izan ditzaketen hainbat kontzeptu garatzen ditu. Inpaktu handieneko bi elementu hauek dira. (15):

- **Erresistentziako Baliabide Orokorrak:** osasun-eredua positiboki ulertzea, arazoak konpontzean eta norberaren, familiaren edo komunitatearen baliabideetatik abiatuta irtenbideak bilatzean oinarrituta.

- **Koherentziaren zentzia:** lirtenbideak bilatzea identifikatutako baliabideetatik eta horiek erabiltzeko gaitasunetik abiatuta. Hiru faktoreren arteko erlazioak osatzen du, hau da, egiten dena ulertzeak (**ulergarritasuna**), maneiatzeko trebetasunak izateak (**maneiagarritasuna**) eta bizitzarako zentzua emateak (**adierazgarritasuna**).

Salutogenesiaren paradigmapean, OParen ikuspegia osasuneko ekintzak modu positiboan ikusteko modu baterantz bideratzen da. Ikuspegi horrek aukera ematen du pertsona eta komunitate bakoitzak osasuna sortzeko dituen baliabideak, trebetasunak eta gaitasunak zeintzuk diren ulertzeko (7, 15).



**4. IRUDIA:** BIZITZAREN IBAIAREN IKUSPEGI SALUTOGENIKOA, LINDSTROM B. ETA ERIKSSON M. ETA RIVERA F. ET AL. OINARRI HARTUTA.

Komunitate batean osasunerako esku-hartzeen planteamenduan begirada salutogenikoa ulertzeko adibide ona da Isabel Pasarínek eta Elia Dízek *Salud comunitaria: una actuación necesaria* artikuluan jasotakoa. Bertan, nerabeen haurduntze-tasa handia duen auzo bati zuzendutako esku-hartzeak proposatzen saiatzen dira. Testuinguru horretan, esku-hartzeak ikuspegi salutogenikotik bideratzeak zera planteatuko luke, preserbatiboak une egokian erabiltzea errazteaz gain, pertsonak ingurune hezitzaileetan bizitzeko aukerak izan ditzaten, hazkunde pertsonala susta dezaten, trebetasun sozialak, komunikatiboak eta negoziatzaileak eskura ditzaten eta abar. Ebidentziak ikuspegi hori babesten du; izan ere, eskoletan sexu-osasunera bideratutako esku-hartzeek eta aholku kontrazeptiboa azaltzen duten

esku-hartze indibidualez gain, familiei lehen haurtzaroan laguntzeko programak eta nerabeen garapen pertsonala sustatzeko esku-hartzeak gomendatzen ditu (16).

Orientazio horrek osasunaren sustapenaren kontzeptua indartzen du, eta kontzeptu hori ulertzen du pertsonak gaitzeko prozesu gisa, beren osasunaren gaineko kontrola areagotzeko eta hobetzeko, **1986ko Ottawako Gutunean** jada aipatzen den moduan (6, 17).

Esparru komunitarioan, eta salutogenesiaren esparru teorikoan oinarrituta, **osasunerako aktiboen eredu**a garatu da. Aktiboen ereduak osasun-ikuspegi bat ematen du, komunitateek beren begirada testuingurura bidera dezaten eta osasuna, ongizatea eta osasuneko ekitatea hobetzen duen horretan arreta jar dezaten. Eredu horrek trebetasunak eta indarrak aprobetxatzeko ikuspegia du, eredu konbentzionalaren aldean, zeinak arreta gehiago jartzen duen arazoetan, defizitetan eta patologian. Osasunerako aktiboen kontzeptualizazioaren logika aukera osasuntsuak erraztean eta eskuragarri izatean datza, ongizate, hazkunde eta zahartze osasuntsura bideratuta (15). Aktiboak, beraz, komunitateak berak aberastasuntzat hartzen dituen baliabideak dira, eta pertsonak eta komunitateek osasuna eta ongizatea mantentzeko duten gaitasuna indartzen laguntzen dute.

**Osasunerako heziketa** osasuna sustatzeko oinarrizko tresna da, eta tresna indartsua da lehen mailako arretako profesionalentzat (18).

Bestalde, LMAREN funtsezko zati batek, osasun komunitarioak, osasunaren baldintzatzaileetaranzko ikuspegi komunitarioa sustatzen du, sektore arteko ikuspegi parte-hartzailearekin. Lehen Mailako Arretan ikuspegi komunitarioaz hitz egitea **orientazio komunitarioko hiru mailei** buruz hitz egitea da (14, 19, 20):

- **1. MAILA:**

- **Maila indibiduala eta familiarra, “kontsulta kalera begira egitea”**

- Kontsultetako eta etxeetako ohiko praktika asistentzialaren lan-maila da. Pertsonak arreta ematen zaie, beren testuinguruei, historia pertsonal eta familiarrei, harremanei eta inguruneei garrantzia emanaz, osasunaren baldintzatzaile sozialen eredu batetik abiatuta.

- **2. MAILA:**

- **Talde-maila, “talde-osasunerako heziketa, kausen jatorrian oinarrituz”**

- Maila hau taldeekin lan egiten duten LMAko taldeetako pertsonak garatzen dute. Maila honetan, komunitateari zuzendutako heziketa-ekintzak (HE) sustatzen dira, lurralde edo komunitate bakoitzaren premia zehatz horien

ezaugarriak kontuan hartuta. Ikuspegi holistiko batekin, talde jardueren bidez baliabide pertsonalak indartu eta autozainketa eta osasunaren arloko ahalduntzea sustatu nahi da, ikaskuntza esanguratsuan eta berdinen arteko ikaskuntzan oinarrituz.

- **3. MAILA:**

**Maila kolektiboa, “ekintza komunitarioa osasunean, osasun-zentroa ez da osasun-zentro bakarra”**

LMAko taldeko pertsona batzuek prozesu komunitario batean edo tokiko gobernantza-sistema batean parte hartzean datza <sup>1</sup>. Maila honetan sektore eta diziplina artean lan egiten da, komunitatearen ongizatea hobetzeko zeregin garrantzitsua duten tokiko eragileekin.

Laburbilduz, estrategiaren kontzeptu-esparruak biltzen ditu ikuspegi salutogenikoa, osasunaren sustapenarekin bat datozen hainbat alderdi, osasunerako aktiboetan oinarritutako garapen komunitarioaren eredia eta sarean lan egitea (sektoreartekotasuna eta partaidetza komunitarioa).

Estrategiak zenbait ekintza proposatzen ditu orientazio komunitarioa hiru mailetan integratzeko LMAko lantaldeetatik, eta lan-esparru bat sortzen du, LMAU bakoitzak osasun komunitarioa maila gorenean garatzeko aukera izan dezan, bere ezaugarrien, heldutasunaren, prestakuntzaren eta esperientziaren arabera. Abiapuntuko egoera aztertzea planteatzen du, LMAUek edo OOEetan eragina dutenek sustatutako osasuna indartzeko jardueren eskaintzari dagokionez, eta, hortik abiatuta, tokiko mailan aliantzak eta harremanak bultzatzeko lan egitea, sektore arteko lana eta herritarren parte-hartzea integratzeko.

---

<sup>1</sup> Euskadin, gaur egun, ez dago osasunaren esparruan tokiko gobernantza-sistema bat edo tokiko partaidetza-organo bat definitzen duen araudirik, beste autonomia-erkidego batzuetan gertatzen den bezala; izan ere, arau mailan badaude figura zehatzak, hala nola tokiko osasun-kontseiluak edo osasun-mahaiak. Tokiko gobernantza-sistemei buruz hitz egingo da herritarren partaidetzarako gune edo taldeak aipatzeko, hala nola osasunerako tokiko sareak (OTS), Redes Mugiment, Auzoak Abian, Erlauntza eta beste batzuk.



**EAE-ko arreta komunitarioaren  
historia laburra, osasun-sektorearen  
ikuspegitik**

# EAE-ko arreta komunitarioaren historia laburra, osasun-sektorearen ikuspegitik

Euskadin, bereziki udal-eremuan, koordinatzeko eta parte hartzeko hainbat bide daude, eta horietan komunitatearen ongizatearekin lotutako hainbat ekintza garatzen dira. Batzuetan, jarduera horiek bikoiztu egiten dira sektore sustatzaileen arteko koordinazio ezagatik (osasuna, udala, foru aldundiak, hezkuntza, etab.), eta, horrela, helburuak eta proiektuen epe ertain eta luzerako iraunkortasuna zaildu egiten dira.

Bestalde, osasunaren esku-hartze komunitarioaren funtsezko elementuetako bat herritarren parte-hartze aktiboa da, baina ekimen gutxitan betetzen da premisa hori.

Erakunde sanitarioetan, osasuna sustatzeko jarduerak egiteko aukera, interesa eta motibazioa egon da. Historikoki, erakundeetan komunitate-Erreferenteak izan dituzten profesionalen laguntza izan da, osasuna sustatzeko hainbat jarduera sustatuz eta profesionalak prozesu komunitarioetan parte hartuz. Hala ere, esku-hartze horiek modu desberdinean garatu dira erakundeetan (21).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko LMAko eremuan egindako jarduera komunitarioen aldakortasuna aditzera eman zen 2003an, Osatzen-eko Jarduera Komunitarioen Taldeak egindako ikerketa deskriptiboan. Azterlanaren ondorioen artean, komunitariotzat hartzen denaren eta ez denaren arteko nahasketa handia nabarmentzen zen. Denbora falta izan zen profesionalak horrelako esku-hartzeak egiteko ikusi zuten zailtasunik handiena. Estatu mailan, ikerlan eguneratuenean eta antzeko orientazioa duten beste azterlan batzuek berretsi egiten dituzte emaitza horiek. (22) (23, 24).

2015ean, EAEn osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa egin zen (25), Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak arreta komunitarioa erakundeetan txertatzea sustatzeko duten interesaren ondorioz. Gida honek esku-hartze komunitarioarako metodologia irekia aurkezten du, eta erreferentzia izan daiteke eremu geografiko zehatzetan partaidetza-


prozesuak hasi edo birbideratu nahi dituen edozein eragile komunitarioentzat, baita ekintza komunitarioa indartzeko aurrerapauso bat ere.

Gainera, lankidetzaren lan horren ondorioz, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeari buruzko oinarritzako prestakuntza-ikastaro bat garatu zen, gaur egun LMAko profesionalen prestakuntza-ibilbidearen barruan eskaintzen dena, baita ikastaro aurreratu bat Osakidetzako eta OPko 54 profesionalentzako ikastaro bateratu eta aurreratu bat ere. Horren guztiaren harira, lan komunitarioko 38 prozesu indartu edo hasi ziren, ESI eta OPko eskualde guztietan zehar.

Ondoren, 2017an, EAEn osasunaren lanketa komunitarioarako ekintza-plan bat onartu zen, zeinak jarduera-ildoak ezarri baitzituen OParen eta Osakidetzaren arteko elkarlana koordinatzeko. Zuzendaritzako koordinazio-egiturak proposatu zituen Plan horrek, makro, meso eta mikro mailan.

2021ean, 2018-2020ko Open Government Partnership Euskadi (OGP-Euskadi) Planaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Gobernantza Sailek Ongizatea eta osasuna sortzen duen partaidetzarako gida egin zuten (26). Gida horrek, egiaztatutako ebidentzian oinarrituta, parte-hartze prozesuek komunitateen osasuna eta ongizatea areagotzeko duten potentzialari balioa ematen dion lan-eredua aurkezten du. Horretarako, parte hartzeko prozesuak diseinatzean, gauzatzean eta ebaluatzean osasun-ikuspegia barneratzeko orientazio praktikoak ematen ditu.

Aipatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu zuten profesionalen lantaldeak sustatu dira 2015etik eta talde horien gogoetari eta oinarritzako osasun-eremuetan bultzatu dituzten prozesu komunitarioei esker, hainbat ahulezia, mehatxu, indargune eta aukera identifikatu dira (AMIA teknika). Hausnarketa horiek, egindako berrikusketa bibliografikotik eta irakurketatik sortutakoekin batera, geuk landutako eskema honetan jaso dira, egokituta:



**5. IRUDIA:** GEUK EGINA, "2016KO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN OSASUNAREN LANKETA KOMUNITARIOA TXERTATZEKO LANTALDEAREN EMAITZAK ETA HAUSNARKETA PROPIOAK" BILTZEN DITUEN DOKUMENTUA OINARRI HARTUTA

2022ko udan, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzak web-inprimaki bat egin eta bidali zuen, inkestak egiteko Inkestagune tresnaren bidez <sup>2</sup>. Horren helburua Osakidetzako erakunde sanitarioen uneko egoera ezagutzeko zen, osasunaren ikuspegi komunitarioarekin lotutako ekintzei dagokienez, baita COVID-19aren pandemiak jarduera horiek mantentzeko moduan izan duen eragina ezagutzeko ere. Txosten osoaren emaitza I. ERANSKINEAN jaso da. Lortutako emaitzen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

Zerbitzu-erakundeen (ZE) % 100ek erregistratuta galdesorta (V. ERANSKINA)	ZE-en % 63,6tan erreferentziako pertsona bat dago komunitarioan	ZE-en % 27,7k estrategia edo plan komunitarioa -> % 66k bere Estrategia edo Plana bidali du
ZE-en % 72,7k komunitarioko batzordeak eta/edo lantaldeak	ZE-en % 59k komunitarioako agenda-denborak, bilerak, talde-saioak (gero erregistroa Historia Klinikoetan - HK-), irteerak, etab. Agenda-patroirik ez komunitarioako denborekin. ZEAk erantzunekin +: denborak, planifikatzen denaren arabera	ZE-en % 90ek komunitateko beste eragile batzuekin parte hartu. ESlen % 92k OTSen parte-hartze aktiboa
ZE-en % 45ek "Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko gida metodologikoa" erabiltzen du	ZE-en % 27k diagnostiko komunitarioaren bat. ZE-en % 45ek osasunerako aktiboen mapaketaren bat. ZE-en % 77k OTSren batean aktiboki parte hartu. -> Horien artean, % 12k lankidetz hainbat OTSetan, udalerrri edo parte hartzeko proiektuetan.	ZE-en % 72 OP teknikariekin (OPT) lankidetzan. ESak bakarrik aztertuz gero: horien % 92 OPTekin lankidetzan (gainerako ZE-en % 33a). % 50ek lankidetz puntualak, beste % 50ak lankidetz finkatua
ZE-en % 45ek partzialki geratuta arreta komunitarioa COVID-19aren pandemiagatik. Gehiengoa pixkanaka berraktibatuta 2021eko bigarren seihilekoan. % 22n erabat geldituta.	ZE-en % 36k jarduera komunitarioaren ebaluazioa. ZE-en % 64k ebaluaziorik ez.	% 36k -> egindako jardueraren memoria, inkesta eta diagnostikoen ebaluazioa. Ez dago osasun-emaitzen edo inpaktuaren ebaluaziorik. Salbuespena: ZE batek ebaluazio kualitatibo eta kuantitatibo puntuala, Fam. eta Kom. espezialisten egoitzaldi-amaierako lanak

**6. IRUDIA:** GEUK EGINA. OSASUNA IKUSPEGI KOMUNITARIOTIK OSAKIDETZAKO ERAKUNDE SANITARIOETAN. UNEKO EGOERARI BURUZKO TXOSTENAREN EMAITZEN LABURPENA, 2022.

<sup>2</sup> **Inkestagune:** Osakidetzak osatzen duten erakunde sanitarioen langileei eta/edo herritarrei zuzendutako inkestak eta kontsulta-formularioak sortzeko web-tresna. Hemen eskuragarri <https://inkestagune.osakidetz.eus/>





# Marko estrategikoa eta testuingurua

## Nazioarteko mailan

OMEk eta UNICEFek antolatutako Osasunaren Lehen Mailako Arretari buruzko Nazioarteko Lehen Konferentzian, **Alma-Atako Adierazpena (1978)** (13) onartu zen, eta horren bitartez helburu unibertsal bat ezarri zen: “Osasuna guztiontzat lortzea”. Halaber, ondorioztatu zen partaidetza komunitarioa osasunaren arloan honako hau dela: *“Prozesu bat, zeinaren bidez gizabanakoek eta familiek erantzukizunak hartzen dituzten beren osasunari eta ongizateari dagokienez, baita kolektibitatearen osasunari eta ongizateari dagokienez ere, eta beren garapenean eta garapen komunitarioan laguntzeko gaitasuna hobetzen duten”*.

Geroago, 1986an, Osasunaren Sustapenerako Nazioarteko Lehen Konferentzian, **Ottawako Gutuna** plazaratu zen (6). OMEk egin zuen dokumentua, “Osasuna guztiontzat 2000. urtean” helburu orokorra lortzeko, eta xede horrekin ezarri ziren jarduera-ildo hauek: ekintza komunitarioa indartzea eta osasun-zerbitzuak birbideratzea.

Gaur egun, osasuna sustatzeko funtsezko erreferentzia-esparru bat **Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Agenda 2030 eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** dira, non 3. helburuan, *“Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea”*, osasuna esplizituki aipatzen den.

Nabarmendu 3. GJHa nabarmentzen da, baina, egiaz, planteatutako helburu guztiek osasunaren baldintzatzaileei heltzen diete, eta kontuan hartu behar dira horiek garatzeko prozesu komunitarioetan.



## 7. IRUDIA: NBEREN GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK.

## Euskal Autonomia Erkidegoan

2010. urtean, Osasun Sailak eta Osakidetzak **Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia** (30) jarri zuten abian, eta bigarren proiektu estrategikoan gaixotasun kronikoen arrisku-faktore nagusiei buruzko osasunaren prebentziorako eta sustapenerako esku-hartzeak jorratu zituzten.

Hiru urte geroago, Osasun Sailak eta Osakidetzak **Euskadiko Arreta Integratuko Plana** garatu zuten, ESIEk biztanleriaren osasuna hobetzera bideratutako ikuspegi proaktiboa har zezaten, pertsona guztien osasun- eta gizarte-premien arabera beharrezkoa den arreta ziurtatzeko. Arreta Integratuko Plan horretan, osasunaren lanketa komunitarioa funtsezko elementutzat hartzen da, eta hiru zutabetan oinarritzen da: gobernantza integratua, biztanleria-ikuspegia eta kultura, eta balioak (31).

**Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2021-2024ko Marko Estrategikoan**, *“Osasun publikoa”* atalean, lehentasunetako bat da *“sarean lan egiteko prozesuak bultzatu eta garatzen jarraituko da toki- eta komunitate-mailan, erakundeen, tokiko eragileen eta komunitateko kideen artean osasuna hobetzen lagunduko duten aliantzak eta sinergiak sortuz”* (32).

**2013-2020ko Euskadiko Osasun Planak**, “Ekitatea eta Erantzukizuna” ataleko ekintzetako bat hau da: *“osasunean ekintza komunitarioa garatu eta sustatzea [...], tokiko eragile guztien partaidetza eta protagonismoarekin”* (33).

**2023-2030eko Euskadiko Osasun Planak** estrategia horretatik landu beharreko gai gehienak gidatuko ditu, eta bere ekintza-ildoen artean honako hauek biltzen ditu: osasun komunitarioko estrategia bat garatzea, tokiko gobernantza-sistemetan lana sustatzea, eta sektore sanitarioen (Osakidetzak eta OP) eta sozialen arteko koordinazio instituzionala indartzea, Euskadi osasuntsuagoa izan dadin.

**Osakidetzaren 2023-2025eko Plan Estrategikoaren** helburua da euskal herritarrei arreta sanitarioa ematea, modu integralean, osasunaren sustapenetik, bai eta gaixotasunaren prebentziotik eta arretatik ere, osasun-emaiztarik onenak lortzeko asmoarekin (34).

**Euskadiko Lehen Mailako Arretako 2019ko strategiak** (35), 20. ekintzan, azpimarratzen du beharrezkoa dela Lehen Mailako Arretako Unitateek eta, bereziki, Lehen Mailako Arretako Erizaintzak ekintzak garatzea osasuneko tokiko aktiboak aprobe-txatzeko. Era berean, Erizain Komunitarioaren (EK) funtzioa hedatzearen alde egin du.

**Euskadiko Lehen Mailako Arretako 2023-2025eko estrategia** berriak osasuna testuinguru komunitariotik lantzea sustatzeko beharra jasotzen du, eta hortik abiatuta ekintza-ildo bat zehazten du: *“Espazioa komunitatean / osasuna sortzeko sustraiak”*.

**Herritarrak Osasunean Ahalduentzeko Osakidetzaren Estrategia** berriak herritar guztientzako erreferentzia-esparru bat definitzen du, osasun-arloko ahalduentzeari buruzko beharrak eta espektatibak kontuan hartuz. Helburu hori bat dator osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko strategiarekin.

## Lege-testuingurua

Osasuna sustatzeko jarduerak egiteko ardura Lehen Mailako Arretari esleitu zitzaion laurogeiko hamarkadan Espainiako osasun-erreforma egin zenetik, eta berretsi egin da ondoz ondoko lege-aldaketetan. **Apirilaren 25eko 14/1986 Osasunaren Lege Orokorrak**, 6. artikuluan ezartzen du administrazio publiko sanitarioen jarduerak osasuna sustatzera bideratuta egongo direla. Zehazki, *“osasuna sustatzera eta norberaren, familiaren eta gizartearen osasunarekiko interesa sustatzera bideratuta egongo dira, herritarren heziketa sanitario egokiaren bidez”*. Halaber, 5. artikuluan jasotzen duenez, *“Osasun Zerbitzu Publikoak partaidetza komunitarioa bideratzeko moduan antolatuko dira”*. Horrez gain, 18. eta 58. artikuluetan ere aipatzen den bezala, *“heziketa sanitarioarako ekintzak sistematikoki hartuko dira, funtsezko elementu gisa, eta komunitatearen parte-hartzea sustatuko da osasun-barrutian”*.

**Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak**, 12. artikuluan jasotzen ditu Lehen Mailako Arretaren prestazioaren deskribapena eta prebentzioaren, osasunaren sustapenaren, familia-arretaren eta arreta komunitarioaren arloko jarduerari lotutako eskumenak.

**OSN zerbitzu-zorroa ezartzen duen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak** honela definitzen du arreta komunitarioa: *“komunitatearen parte-hartzea duten jarduketan multzoa, komunitatearen osasun-premiak eta -arazoak atzematera eta lehenestera bideratuak, eskura dauden baliabide komunitarioak identifikatuz, esku-hartzei lehentasuna emanez eta komunitatearen osasuna hobetzera bideratutako programak prestatuz, beste dispositibo batzuekin koordinatuta”*.

Bestalde, **Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorren** hitzaurrean adierazten da osasun-zerbitzuek, oro har, eta Lehen Mailako Arretak, bereziki, prebentzio-ekintzan eta osasun komunitarioan duten zereginaren garrantzia. Lege horren 23. eta 26. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatzen da zerbitzu asistentzialen eta osasun publikoko zerbitzuen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela familia- eta komunitate-arreta garatzeko, eta osasun-arloak osatzen dituzten organoek kontuan hartuko dituztela arreta komunitarioa, gaixotasunaren prebentzioa, osasunaren babesa eta sustapena hobetzera bideratutako ekintzak.

Azkenik, **Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legean**, 21. artikuluan, zera zehazten da: *“Osasun-sistemak eragin erabakigarria du pertsonen osasuna mantentzeko eta lehengoratzeko, eta, are gehiago, funtzio garrantzitsua betetzen du beste gizarte-determinatzaile batzuek osasunean sortzen dituzten desparekotasunak konpentsatzeko. Ildo horretan, osasunaren lehen mailako arreta, prebentzio-jarduerak eta osasunaren sustapena funtsezko elementuak dira osasun-*

*arloko desparekotasun sozialak zuzentzeko. Era berean, sistemaren irisgarritasuna maila guztietan eta pertsona guztientzat bermatuta dagoen heinean, eta osasun-sistemak oro har eraginkortasunez, segurtasunez eta efizientziaz jarduten duen heinean, bere jarduketetan kostu-eraginkortasun erlazio egokia bermatuz, biztanleriaren osasuna hobetzeko balioa ematen du.”*



# Misioa, ikuspegia eta balioak

**MISIOA:** Osakidetzako Lehen Mailako Arretatik osasunaren ikuspegi komunitarioaren lanketa bultzatzea eta egituratzea, beste eragile batzuekin batera, eta horretarako haren balioa azpimarratzea eta abian dauden ekimenak sustatzea, bai eta abordatze horren aldeko ekintza berriak sortzea ere.

**IKUSPEGIA:** Osakidetzako Lehen Mailako Arretako Unitateetatik osasun- eta gaixotasun-prozesuei heltzeko eran ikuspegi komunitarioa sustatzea, inguruneen arabera txertatutako kalitatezko erantzuna emateko, eta erantzun horrekin bultzatzeko Osakidetzaren eta Osasun Publikoaren lan koordinatua, sektoreartekotasuna, parte-hartze soziala eta sistemaren jasangarritasuna.

## **BALIOAK:**

- **Begirada salutogenikoa**, fokua jarrita pertsonei, familiei eta komunitateei beren osasunaren gaineko kontrola areagotzen eta osasuna hobetzen laguntzen dien horretan; betiere, ongizatera, hazkundera eta zahartze osasuntsura bideratutako aukerak erraz eta eskuragarri egiteko logikari jarraituz eta osasunaren jatorria azpimarratuz.
- **Partaidetza komunitarioa**, hau da, komunitatea benetan egotea inplikaturik osasuna eta osasun komunitarioa sustatzeko jarduerak lehenestearekin, erabaki-hartzearekin eta diseinu eta garapenarekin
- **Sektoreartekotasuna**, aliantza baten bitartez gauzatzen dena, osasun-zerbitzuen, udal-zerbitzuen (sozialak, ingurumenekoak, kirolak), hezkuntzaren, tokiko elkarten eta abarren artekoa; hau da, zerbitzu sanitarioen eta zerbitzu ez-sanitarioen arteko aliantza, «Osasuna politika guztietan» estrategia garatzeko, osasunaren baldintzatzaileetan eragingo duten eta herritarren osasuna eta ongizatea sustatuko duten ekimen ez-sanitarioen bidez.
- **Ekitatea eta desberdinkerien aurkako borroka**, lurralde osoan lan egiteko modu bat hedatzea, biztanleriaren ikuspegiarekin, osasunaren baldintzatzaile sozialak kontuan hartzen dituen eta bermatzen dizkiena biztanleria-talde guztiei (hauen araberrakoa: generoa, adina, etnia, dibertsitate funtzionala, jaiolera, kokapen geografikoa, eta abar) komunitatearen sustapenerako eta osasunerako zerbitzuetan parte hartzeko eta zerbitzu horietara iristeko aukera berdina izatea.



# Helburu orokorrak eta operatiboak

## Helburu orokorrak:

1. Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko behar den gobernantza-eredua eratzea eta hedatzea Osakidetzako Lehen Mailako Arretan.
2. Oinarrizko osasun-eremuan osasuna sustatzeko jardueren eskaintzari dagokionez, gaur egungo egoera aztertzea.
3. Lehen Mailako Arretatik Osasun Publikoko egiturekin eta beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzea bultzatzea, orientazio komunitarioko hiru mailetan.
4. Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko strategiari dagokionez, erraztea bai informazio-trukea, bai parte-hartzea, diziplina anitzekoa, sektore artekoa, erakundeena eta herritarrena

## Helburu operatiboak:

1. Lankidetzan eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.
2. LMAUetan antolaketa-gaitasuna sortzea, testuinguruen arabera eta artatutako biztanle-taldearen arabera, haien beharrei eta eskaerei modu koherentean eta iraunkorrean erantzuteko.
3. LMAU bakoitzeko populazioaren osasun-profilari egokituta, osasuna sustatzeko jarduerak modu ekitatiboan betetzeko zerbitzu korporatiboaren zorro bat definitzea.
4. Oinarrizko osasun-eremuan dauden baliabide komunitarioak identifikatzea.
5. Laguntzea LMAUetako profesionalei jakiten artatzen dituzten herritarrek zein osasun-profil duten eta herritar horiei osasunaren zein baldintzatzaile sozialek eragiten dieten.
6. Lehen Mailako Arretako kontsultetan osasunerako aktiboak eta baliabide komunitarioak gomenda ditzatela sustatzea.
7. Koaderno Komunitarioa ezartzea LMAUetan, osasuna sustatzeko jarduerak planifikatzeko tresna gisa.
8. Lehen Mailako Arreta Unitateetan osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea, eta bertako profesionalek prozesu komunitarioetan eta tokiko gobernantza-sistemetan parte har dezaten sustatzea.
9. Barneko eta kanpoko informazioa hedatzeko kanal bat ezartzea.





# Estrategiaren funtsezko elementuak

## Integrazioa EAE-ko estrategiekin eta planekin

Funtsezkoa da estrategia hori Euskadin garatutako beste estrategia eta plan batzuekin integratzen dela bermatzea, bereziki, Osasun Publikoko eta osasuna sustatzeko planekin, asistentzia sanitarioarekin lotutako planekin, eta koordinazioa behar duten beste sektore batzuetako plan eta estrategiekin. Tokiko mailan, diseinatutako ekintzak estrategietan eta planetan bateratzen dira, eta, horregatik, sinergiak ezarri behar dira tokiko mailan jarduten duten edo politika lokalak bideratzen dituzten eragileen artean, emaitza hobek lortzeko eta osasun- eta ekitate-maila handiagoak lortzeko.

Osasun komunitarioa Lehen Mailako Arretaren eta Osasun Publikoaren koordinazio naturalerako guneetako bat da, EAEn izan diren esperientzia positiboek erakusten duten bezala.

## Erizain Komunitarioaren figura



Estrategia horri euskarria emateko sortu den antolaketa-egituraren ardatza figura profesional berri bat da: Erizain Komunitarioa. Figura horrek dedikazio eskusiboa izango du osasuna sustatzeko eta LMAUetatik lanketa komunitarioarako jarduerak bultzatzea, dauden hiru mailetan. Giltzarri izango da diziplina anitzeko eta sektore arteko lan-sareak sortzeko, Osakidetzako ESIen barruan eta ESIen kanpoko harremanetan ere, Osakidetzaren eragin-eremuetako eragile komunitarioekin.

Erizaintzaren diziplinan, giza osasunaren esperientziaren testuinguruak berak esaten die Erizain Komunitarioei populazioak, berez, pertsonen eta pertsona-taldeen arteko harremanek eta interakzioek definitzen dituztela, eta haien bizitza indibidualak garatu ahal izateko, alde batetik lagundu egiten diela familien, komunitateen, kulturen eta gizartearen testuinguruak, baina beste alde batetik, mugatu ere egiten diela.

Erizain Komunitarioek, familia- eta komunitate-erizaintzako adituen profila duten erizainek, erizaintzako, Osasun Publikoko eta gizarte-zientzietako ezagutza biltzen dute, fokua jarrita komunitateen zainketan, osasuna sustatuz eta gaixotasuna prebenituz, oinarritzat hartuta ezinezkoa dela osasun indibidualaren zainketa jasagarria, populazio osoa zaindu gabe (36–38).

Haien praktika profesionala 8. irudian azaltzen diren balio, ezagutza eta

trebetasunen arabera garatzen da. Bertan, EKren rolaekin lotutako gaitasunak ere deskribatzen dira:



**8. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO ESHEMA, KOMUNITATEKO ERIZAINAREN BALIOAK, EZAGUTZAK ETA TREBETASUNAK BILTZEN DITUENA. II. ERANSKINEAN, EKREN ROLAREKIN LOTUTAKO GAITASUNAK LUZE-ZABAL JASOTZEN DIRA.

EK-k komunikazioa eta aliantzak ezarriko ditu honako maila hauetan:

### **Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuetan**

ESIn barruan, Erizain Komunitarioek koordinazio eta komunikazio zuzeneko harremanak ezarriko dituzte ESiko komunitateko Erreferenteekin eta Integrazioko Zuzendaritzekin edo Koordinazioekin.

Harreman estu hori ezartzeak ESIn definitutako partaidetza-organoetan lortutako akordioetan parte hartzea eta akordio horiek ezagutzea bermatuko du (39):


- Kontseilu kliniko asistentziala
- Kontseilu soziala
- Batzorde soziosanitarioa

Gainera, ESietako komunitateko Erreferenteekin eta Integrazioko Zuzendaritzekin edo Koordinazioekin izandako harreman zuzen hori funtsezkoa izango da estrategian planteatutako ekintzak Osakidetzaren egituretan modu homogeneoan ezartzen direla ziurtatzeko, eta bermatzeko bat datozela Osasun Planarekin, osasuna sustatzeko programa eta proiektu korporatiboekin eta asistentzia sanitarioarekin lotutako beste plan batzuekin.

Erreferenteak diren LMAUetako taldeei dagokienez, harremana LMAUetako arreta komunitariorako Erreferenteak diren pertsonen eta LMAUko kudeaketa-taldearen bidez koordinatzen da (LMAUB-LMAUko buruzagitza, Erizaintzako koordinatzailea eta Administrazio-eremuetako arduraduna).

Hortaz, EK bera arduratuko da LMAUetako profesionaleri laguntzeaz osasuna sustatzeko jarduerak abian jar ditzaten, eta aholkatu eta orientatzeaz ere, jarduerok sektore bakarrekoak zein sektore artekoak izan, bai eta profesionaleri bultzada emateaz ere, haien tokiko eremuan gauzatutako prozesu komunitarioetan parte har dezaten.

Populazio-talde jakin batzuei eragiten dieten proiektuak edo programak bultzatzeko, EK-k bertatik bertarako harremana izango du bere erakundearen erreferente diren funtsezko profesionalekin.




**9. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO DIAGRAMA, KOMUNITATEKO ERIZAINAREN ESI BARRUKO HARREMAN-MAPA AZALTZEKO. **KPAE:** KRONIKOTASUNEKO PRAKTIKA AURRERATUKO ERIZAINA, **OLE:** OSPITALE-LOTURAKO ERIZAINA, **AE:** ADMINISTRAZIO-EREMUAK.

### Osasun Publikoarekin koordinazioan

Osasun Publikoko egiturekin lankidetzarako, koordinazioarako eta sinergietarako aukerak sustatuz.

### Sektore arteko koordinazioan

Udaletako eta foru-aldundietako teknikariek, hezkuntzarekin, elkarteekin eta gizarte-arloko arduradunekin, besteak beste, lankidetzarako eta koordinazioarako aukerak sustatuz.



**10. IRUDIA:** DGEUK EGINDAKO DIAGRAMA, KOMUNITATEKO ERIZAINAREN ETA GAINERAKO ERAGILE KOMUNITARIOEN ARTEKO HARREMAN-MAPA AZALTZEKO. **ELZ:** ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA.


## Eragile komunitarioen inplikazioa: sektoreartekotasuna

Eragile komunitarioak aipatzen ditugunean, osasunaren arloan funtsezko zeregina duten erakundeei, administrazioei, teknikariei eta tokiko elkarteei buruz ari gara, herritarrengandik hurbil daudenak, denak ere. Zeregin hori hainbat politikaren bidez eta zerbitzuak emanez betetzen dute (osasuna, gizarte-ongizatea, aisialdia, kultura, kirolak, ingurumena, garraioa, hirigintza, etxebizitza, segurtasuna, etab.).

Tokiko administrazio-eremua ingurune pribilegiatua da, lurralde berean lan egiten duten sektore artean aliantzak eta sinergiak ezartzeko.

Elkartzeko aukerak sortzeko eta sareko eta sektore arteko lana bultzatzeko nahitaez eskatzen dute erakundeetan barne-erlaketak egitea, denbora eta erakundeen babesak. Jarraian proposatutako eskeman, sarean lan egiteko etapen eredu bat ikus daiteke.


Helbururik behinena lankidetzako eta sareko laneko etapetara iristea bada ere, estrategia honekin (ekintzen bitartez) lortu nahi dena, gutxienez, eragileen arteko lankidetzak eta koordinazio-harremanak sustatzea da.



**11. IRUDIA:** SEKTORE ARTEKO LANA EKINTZA KOMUNITARIOKO ZIKLOAN. ACCIÓN COMUNITARIA PARA GANAR SALUD (7).

## Eragile komunitarioen inplikazioa: Herritarren parte-hartzea

Osasunaren sustapenez eta ekintza komunitarioaz ari garenean, biztanleriaren parte-hartzea funtsezkoa da. Gure testuinguruan, ordea, gutxi dira herritarrek modu aktiboan (erabakiak hartzea, lidergo partekatua edo partaidetza komunitarioa) eta osasunarekin lotutako esku-hartzeak edo proiektuak definitzeko hasierako faseetatik parte hartzen duten ekimenak.



**12. IRUDIA:** PARTAIDETZA KOMUNITARIOAREN MAILAK OSASUN-PROGRAMA EDO -PROIEKTU BATEAN. ADAPTA GPS PROIEKTUAREN LANTALDEA (ADAPTA Y APLICA GUÍAS DE PROMOCIÓN DE SALUD). PARTAIDETZA KOMUNITARIOA: OSASUNA ETA ONGIZATEA HOBETZEN ETA OSASUN-ARLOKO DESBERDINKERIAK MURRIZTEN (40).

## Sentsibilizazioa, prestakuntza espezifikoa eta etengabea

Profesionalak sentsibilizatzeko plana, alde batetik, eta osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeari buruzko prestakuntza, bestetik, zeharkakoa eta etengabekoa den prozesu batean garatu behar dira, eta estrategia honetan jasotako ekintza-ildo guztietan eragina izan behar du prozesu horrek.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-plan honen helburua da profesionalek beharrezko abileziak, ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea, gai izan daitezen LMAn osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko, orientazio komunitarioko hiru mailetan. Beraz, inpaktua sortzea du helburu plan horrek, praktikak LMaren eremuan egiten dituzten medikuntzako eta erizaintzako graduaurreko prestakuntzan, erizaintzako edo familia- eta komunitate-medikuntzako egoitzaldietan, eta, jakina, lan-inguruneetan, kategoria, maila eta eremu guztietako langileengan (baita LMAtik kanpo lan egiten dutenengan ere).

2015ean eta 2016an egindako lanari esker, Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboak, Osasun Publikoko eta Osakidetzako langileen laguntzarekin, oinarritzko prestakuntza-jarduera bat prestatu du online eskaintzeko, horren bitartez profesionalak osasunaren ikuspegi komunitarioan sentsibilizatzeko eta aktibatzeko. Prestakuntza-jarduera hori LMAko profesionalen eta Familia eta Komunitate Medikuntzako eta Erizaintzako egoiliarren prestakuntza-ibilbidean txertatuta eskaintzen da. Prestakuntza-jarduera horren edukiak honako hauek dira:

- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko elementurik garrantzitsuenak ezagutzera ematea. Partaidetza komunitarioa osasunean.
- Ikuspuntu salutogenikoa ezagutzea: osasunerako aktiboen eredua.
- Arreta biopsikosozialaren eredua. Elkarrizketa klinikoa ikuspegi komunitarioarekin.
- Komunitateko aktiboak identifikatzea: aktiboen mapaketa, Euskadi-Aktiboa aplikazioa.
- Esku-hartze komunitarioaren onurak.

Atal honetan aipatzekoa da zenbaterainoko bultzada eman dioten Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalek (FKAMIU) osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko prestakuntzari eta sentsibilizazioari, irakaskuntza-planen bidez. Hain zuzen ere, prestakuntza espezializatuko etapa horretatik bertatik sentsibilizatzek, osasun komunitarioari heltzeko modua aintzat hartuta, zuzenean eragiten die LMAko profesionalei. Irakaskuntza-jarduera horrek hainbat landa-lan egitea eskatzen du, populazioen araberako ezaugarriak ezagutzeko eta prestakuntza-programa egiten duten oinarritzko osasun-eremuetan dauden osasunerako aktiboak mapatzeko.

## Lehen mailako arretako taldearen inplikazioa

LMAUek, osasuna sustatzeko jardueretan parte hartzen dutenean, behar besteko denbora behar dute jarduerok diseinatzeko, planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, horiek denak eguneroko jardueran modu planifikatuan integratuz.

Izan ere, talde-lana sustatzeari, diziplina anitzeko eta sektore arteko lana egiteari eta komunitatera irteteari denbora dedikatu behar zaio eta agenda profesionalak egokitu behar dira, bai eta inplikaturako profesionalentzako konpentsazio- eta aintzatespen-mekanismoak ezarri ere.

Kalitatezko agenda profesionalak definitzeko lanarekin batera, maila korporatiboan hainbat ekintza ezartzen dira, errazagoa izan dadin denborak kudeatzea talde-bilerak egiteko, komunitatearen eragileekin biltzeko eta tokiko mailan osasuna sustatzeko jarduerak gauzatzeko.

AGENDAKO EKINTZAREN IZENA	DEFINIZIOA/ ERABILERA	MOTA	IRAUPENA	SAILKAPENA
BILERA	Prestakuntza-jarduerak, saio klinikoak, talde-bilerak, bilerak Osasun Publikoarekin eta komunitatearen eragileekin, irakaskuntza, ikerketa... Beste izen batzuk kenduko lirateke (saioa...)	Itundua	60 minutu	BILERA/ IRAKASKUNTZA
TALDEKO HE <sup>3</sup>	Pazienteen heziketa taldean bideratzeko ekintza (Ama izateko prestaketa, tabakoa erretzeari uztekoa, Paziente Bizia...)	Itundua	EGINDAKO JARDUERAREN ARABERAKOIA	JARDUERA KOMUNITARIOA

### 1. TAULA: KALITATE-AGENDETAKO EKINTZEN IZENA.

<sup>3</sup> Ekintzak LMAU guztietan duen izena. Jarduera hori egiten duten LMAko profesionalen ohiko patroiarekin barruan itundutako ekintza. Izena egokitzeko aukera ematen du, xehetasuna gehituz; betiere, TALDEKO HEREkin hasten bada (adibidez: TALDEKO HE\_tabakoa; TALDEKO HE\_erorikoaren preb.)





# Líneas estratégicas de actuación

## 1. ILDO ESTRATEGIKOA:

**Osakidetzako osasun komunitarioko  
estrategiaren gobernantza, organigrama eta  
koordinazio-mekanismoak.**

**Figurak, egitura eta gobernantza**

### HELBURUA

**1. HELBURU NAGUSIA. Osakidetzako Lehen Mailako Arretan osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko behar den gobernantza-eredua eratzea eta hedatzea.**

### DESKRIBAPENA

Erabakiak hartzeko eremuek eta haien koordinazio- eta gobernantza-mekanismoek argiak izan behar dute, eta erakunde-maila desberdinak kontuan hartu behar dituzte, eta, are garrantzitsuagoa dena, tokiko testuingurua, bertan gauzatzen baitira azkenean herritarrengan eragina duten esku-hartzeak.

Estrategia hori hedatzeko, beharrezkoa da Giza Baliabideen antolamendu-egitura bat definitzea, koordinazio- eta gobernantza-mekanismoak errazteko eta arautzeko, LMAUetan osasuna ikuspegi komunitariotik lantzea bultzatzeko.

Egitura hori, beraz, harremanak eta sinergiak bermatzeko sortu da, hainbat eremu asistentzialetako profesional sanitario, Osasun Publiko, toki-erakunde, elkarte-sare, herritar, paziente-elkarte, hezkuntza, gizarte-zerbitzu, establezimendu sanitario eta eragile komunitarioen artekoak, bai Autonomia Erkidegoaren eta udalerrien mailan, bai auzoan edo hurbileko beste edozein lurralde-mugapenetan ere.

## 1.1 EKINTZA: Osakidetzako Osasun Komunitarioa Koordinatzeko Zuzendaritza Batzordea sortzea

### HELBURUA

**1. HELBURU OPERATIBOA.** Lankidetzeta eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

### DESKRIBAPENA

#### HONAKO EK OSATZEN DUTE:

- Asistentzia Sanitarioko zuzendaria
- Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko zuzendariordea
- Erizaintzako zuzendariordea
- Lanketa komunitarioarako erreferentziako taldearen ordezkaria, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordea
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea
- Arreta Soziosanitarioko zuzendaria

#### EGINKIZUNAK ETA MUGARRIAK:

- Jarduteko ildo estrategikoak eta lehentasunezko helburuak finkatzea, Osasun Planean eta Osasun Sailaren eta Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren plan eta programa estrategikoetan oinarrituta.
- Proposatutako ekintzak garatzeko eta ezartzeko behar diren baliabideen zuzkidura eta finantzaketa ziurtatzea.
- Maila makroan koordinatzeko aliantzak ezartzea, tokiko administrazioan sinergietan eta lankidetzan gauzatzeko, herritarrekin lotura zuzenena duen administrazioan, hain zuzen ere. Aliantzak bultzatzea Euskadiko ekintza komunitarioekin zerikusia duten beste erakunde, entitate eta eragile batzuekin.
- Ekintza komunitarioko ildo nagusiak eta urteko lehentasunezko helburuak ezartzea.
- Eraitzen betetze-maila ebaluatzea.

#### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK:

Osakidetzako Osasun Komunitarioa Koordinatzeko Zuzendaritza Batzordea osatzea.

## 1.2 EKINTZA: Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea sortzea, Osasunaren prebentzio eta sustapen arloan, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan

### HELBURUA

**2. HELBURU OPERATIBOA.** Lehen Mailako Arreta Unitateetan antolakuntza-gaitasuna sortzea, testuinguru eta biztanle-talde desberdinen beharrei eta eskaerei modu koherentean eta iraunkorrean erantzuteko.

**1. HELBURU OPERATIBOA.** Lankidetza eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

### DESKRIBAPENA

#### DEFINIZIOA ETA NOREN MENDE DAGOEN:

Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, izan ere, talde tekniko eta koordinatzailea izango da, eta funtzionalki eta egituran Osakidetzako Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren mende egongo da; zehazki, osasunaren prebentzio eta sustapen arloari atxikita.

Erreferentzia-talde horretan, bi lanpostuk Familia eta Komunitate Arretako Erizain Espezialista profila izango dute, eta beste batek administrari profila. Haien eginkizun nagusia izango da Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarearen (OOKS) koordinatutako lana erraztea, bat etorritik Osasun Sailak eta Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzak berak ere definitutako plan eta estrategia orokorrekin.

#### LMAKZ-KO LANKETA KOMUNITARIORAKO ERREFERENTZIA-TALDEAREN FUNTZIOEN DESKRIBAPENA:

- Osakidetzako Osasun Komunitarioa Koordinatzeko Zuzendaritza Batzordean parte hartzea, ESlen ikuspegiaren eta tokikoaren berri emanez nahiz mikro eta meso errealitateen berri emanez.
- Osasun Publikoaren eta OOKSaren arteko integrazioa erraztea LMAren eremuan, komunitateetako osasun-eragile eta -aktiboen sare zabalagoen garapena sustatzeko.
- Sektore arteko koordinazio-taldeen arteko topaketak sustatzea, makro eta meso mailan.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarearen funtzionamendu orokorra koordinatzea.
- Estrategiaren ondoriozko ekintzen ezarpena zabaltzea, Osakidetzaren komunikazio-

kanal korporatiboen bidez.

- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia bultzatzea eta ebaluatzea.
- OOKSan eta Lehen Mailako Arretako Unitatean atzemandako etengabeko prestakuntzako beharrei erantzutea, Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboarekin koordinatuta.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzearen inguruan Jardunbide Egokien Jardunaldiak antolatzea, sortutako esperientzien topaketarako eta ikaskuntzarako aukera gisa.

---

### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

Lanketa komunitariorako erreferentzia-talde bat sortzea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloan, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren egituraren barruan, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren mende.

Erreferentzia-talde hori OOKSarekin lotuko da. Sortu berri den egitura horrek ESIetan Erizain Komunitarioaren figura egotea planteatzen du. (1.3 ekintza).

---

### 1.3 EKINTZA: Konfiguratzea Osakidetzako Osasun Sare Komunitarioa eta Erizain Komunitarioa ESietan

#### HELBURUA

**2. HELBURU OPERATIBOA.** Lehen Mailako Arreta Unitateetan antolakuntza-gaitasuna sortzea, testuinguru eta biztanle-talde desberdinen beharrei eta eskaerei modu koherentean eta iraunkorrean erantzuteko.

**1. HELBURU OPERATIBOA.** Lankidetzeta eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

#### DESKRIBAPENA

##### EK-REN ETA OOKS-AREN DEFINIZIOA ETA NOREN MENDE DAUDEN

Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sareak Erizain Komunitarioaren figura txertatu du ESietan. Figura berri hori ESI bakoitzaren Zuzendaritza Gerentziaren mende egongo da organikoki eta funtzionalki, Integrazioko Zuzendaritzen edo Koordinazioen bitartez eta ESiko komunitateko Erreferentearekin batera lan egingo du. OOKSak, gainera, bertatik bertarako harremana ezarriko du lanketa komunitariorako erreferentzia-taldearekin, LMAKZko Osasunaren prebentzio eta sustapen arloan, baterako lankidetzeta-arloak garatzeko eta osasuna sustatzeko programa eta proiektu korporatiboak ezartzeko.

Lehen fase honetan, eta hasierako proposamen gisa, ESI bakoitzaren neurriaren arabera, proportzionalki kalkulatu da Erizain Komunitarioen kopurua; hau da, Familia eta Komunitate Erizaintzako Espezialista profila duten profesional horien kopurua. Beraz, EK bakoitza 63.000 Osasun Identifikazio Txartel (OTI) ingururentzat izango da erreferentziazko profesionala, kontuan hartuta sakabanaketa eta LMAU/ESI bakoitzaren MEDEA gabezia-indizea ere dimentsionamendua doitzeko.

	OTIak, guztira	EK kop.
<b>ARABAKO ESI-A</b>	<b>304.799</b>	5
<b>ARABAKO ERRIOXAKO ESI-A</b>	<b>10.529</b>	1
<b>BARAKALDO-SESTAOKO ESI-A</b>	<b>129.122</b>	2
<b>BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-A</b>	<b>306.002</b>	5
<b>BIDASOKO ESI-A</b>	<b>86.188</b>	1
<b>BILBO-BASURTUKO ESI-A</b>	<b>356.908</b>	6
<b>DEBABARRENEKO ESI-A</b>	<b>74.471</b>	1
<b>DEBAGOIENENKO ESI-A</b>	<b>66.130</b>	1
<b>DONOSTIALDEKO ESI-A</b>	<b>379.654</b>	6
<b>EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-A</b>	<b>161.893</b>	3
<b>GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI-A</b>	<b>100.814</b>	2
<b>TOLOSALDEKO ESI-A</b>	<b>65.860</b>	1
<b>URIBEKO ESI-A</b>	<b>221.581</b>	3
<b>GUZTIRAKOA</b>	<b>2.269.951</b>	<b>37</b>

**2. TAULA:** ERIZAIN KOMUNITARIOAK ESI-ETAN. 2022KO EKAINEAN KALKULATUTAKO OTI-AK.

ESI guztiek EK bat izango dute gutxienez, eta EK bat baino gehiago duten erakundeetan, horietako bat izango da Integrazioko Zuzendaritzekin edo Koordinazioekin hitz egingo duena.

**OSAKIDETZAKO OSASUN KOMUNITARIOKO SAREAN INTEGRATUTAKO ERIZAIN KOMUNITARIOAREN FUNTZIOEN DESKRIKAPENA**

- Sektore arteko koordinazioa eta OParekiko harremanak erraztea eta sustatzea.
- LMAUek bultzatutako osasuna sustatzeko jardueren eskaintza korporatiboa definitzea, Euskadin garatutako estrategia eta planekin lerrokatuta; bereziki, Osasun Planarekin eta osasuna prebenitzeko eta sustatzeko estrategia-ildoekin, bai eta koordinazioa behar duten beste sektore batzuetako estrategiekin ere.
- Mapaketak eginez, oinarritzko osasun-eremuan dauden baliabide komunitarioak ezagutzea.

- Ezagutzea eta bultzatzea LMAUetako profesional-taldeek lankidetzaren erakunde-mailan zehaztutako sektorearteko lankidetzaren protokolo edo -zirkuituetan (Osakidetzaren Gizarte Zerbitzuak; Osakidetzaren Hezkuntza Komunitatea; Osakidetzaren Foru Aldundia; Osakidetzaren Elkartearen sarea).
  - LMAUetako profesional-taldeek erreferentziarako populazioetan eragina duten osasun-profila eta osasunaren baldintzatzaile sozialak ezagut ditzaten sustatzea.
  - Ekintza komunitarioa sustatzea tokiko ingurunean.
  - LMAko taldeetako profesional batzuk bultzatzea prozesu komunitarioetan parte har dezaten, osasunerako aktiboaren metodologian oinarrituta.
  - Estrategiaren ondoriozko jarduerak hedatzeko barneko eta kanpoko komunikazio-kanalak finkatzea.
-

## 1.4 EKINTZA: Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean erreferentziatzeko pertsona bat izendatzea

### HELBURUA

**2. HELBURU OPERATIBOA.** Zerbitzu sanitarioetan antolakuntza-gaitasuna sortzea, testuinguru eta biztanle-talde desberdinen beharrei eta eskaerei modu koherentean eta iraunkorrean erantzuteko.

**1. HELBURU OPERATIBOA.** Lankidetzaren eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

### DESKRIBAPENA

#### FIGURAREN DEFINIZIOA

LMAUaren mailan osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko erreferente izendatutako profesionala.

LMAko taldeko edozein profesionalak hartu ahal izango ditu bere gain erreferente-funtzioak (erizain, mediku edo administrazio-eremuko langile).


OOKSan integratutako Erizain Komunitarioek erreferentziatzeko pertsona horiek izenez identifikatuta izango dituzte, eta haiekin lankidetzaren harremanak, baterako lana eta aldizkako topaketak ezarriko dituzte.

#### EGINKIZUNAK

- Kren eta osasun-zentroko taldearen arteko lotura izatea.
  - Taldekideei helaraztea topaketetatik eta Erizain Komunitarioarekin lankidetzaren egindako lanetik eratorritako informazio esanguratsu guztia.
  - Zentroko gainerako taldekideei aholkularitza ematea osasuna sustatzeko jarduerari buruz.
  - EKri jakinaraztea zer premia eta proposamen identifikatu diren osasun-zentroko taldean, osasunari komunitatean heltzeari dagokionez.
- Osasun-zentroaren eta eragile komunitarioen arteko lotura izatea.
- Zentroko Koaderno Komunitarioa konfiguratzeko erreferentzia izatea, EKrekin eta osasun-zentroko gainerako profesionalekin koordinatuta.

**Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia. Lehen Mailako Arreta**

Jarraian laburbiltzen da, modu eskematikoan, Estrategia honek Osakidetzaren barruan sortu nahi duen egitura:



**13. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO DIAGRAMA, GOBERNANTZA-EGITURA ETA IRUDIAK.

## 2. ILDO ESTRATEGIKOA:

**LMAUen abiapuntuko egoera aztertzea, lanketa komunitarioari dagokionez (barne-eskaintza eta baliabide komunitarioak)**

### HELBURUA

**2. HELBURU NAGUSIA. Oinarrizko osasun-eremuan gaur egungo egoera aztertzea, osasuna sustatzeko jardueren eskaintzari dagokionez.**

### DESKRIBAPENA

Sektore arteko lana gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da eragile komunitarioen arteko sare-lana sustatzea. Lehen urratsak egin ahal izateko, egiten dena ezagutarazi behar da, eta ingurunean nor gehiago ari den eta nork duen eragina jakin.

---

## **2.1 EKINTZA: Ikerketa deskriptiboa, osasuna sustatzeko eskaintako jardueren artean LMAk zeinetan parte hartzen duen jakiteko eta LMAUetako profesionalek toki-eremuko prozesu komunitarioetan duten parte-hartzea ezagutzeko**

Gaur egun, ez dago inolako erregistro korporatibotan edo baliabide-mapatan jasota LMAk Osakidetzan eskaintzen dituen osasuna sustatzeko jardueren zerrenda; hau da, ez dakigu sektore bakarretik ezta beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan ere (hots, sektore artean) osasuna sustatzeko zein baliabide eta jarduera sorta dagoen. Ez dago, ezta ere, erregistro korporatiborik jasotzen duenik zein LMAU ari den tokiko partaidetza-organoren batekin lankidetzan edo beren toki-esparruko prozesu komunitario batean parte hartzen.

Arlo asistentzial hutsetik harago doan jarduera hori guztia, askotarikoa da, izan ere, hezkuntza-metodologiari, diseinuari, jorratutako faktoreei, gaiari, xede-populazio-taldeei eta abarri dagokienez. Beraz, ez dago jarduera edo ekimen horiek antolatzeke aukera ematen duen sailkapen-irizpide zehatzik, kontuan hartuz ikuspegi komunitarioa, sektore artekoa eta/edo parte-hartzearen aldekoa ote duten (21, 23, 41).

Bestalde, ekimen horietako asko ez daude proiektu zehatz bati lotuta, edo ez daude programa edo proiektu korporatibo batean kokatuta; era isolatuan gauzatzen dira, eta horrek zaildu egiten du haien eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Ekintza honek abiapuntuko egoera aztertzea planteatzen du, LMAUetatik abian jarritako osasuna sustatzeko jarduerari dagokienez, eta sailkapen-irizpide argiak ezartzea. Lehen urrats gisa, barne-mailan zer egiten ari den identifikatzea proposatzen du, egiten dena ezagutarazteko eta jarduera-eskaintza homogeen eta korporatibo baten definizioan aurrera egiteko.

## HELBURUA

**3. HELBURU OPERATIBOA.** LMAU bakoitzeko populazioaren osasun-profilari egokituta, osasuna sustatzeko jarduerak modu ekitatiboan betetzeko zerbitzu korporatiboen zorro bat definitzea.

## DESKRIBAPENA

### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, Osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasuna ikuspegi komunitariorik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziazko pertsona.

---

### EGINKIZUNEN ETA MUGARRIEN DESKRIBAPENA

- Osasuna sustatzeko jarduerak sailkatzea, faktore motaren, jardueraren eremuaren, gaiaren, hezkuntza-metodologiaren, komunitatearen parte-hartze mailaren, sustatzailearen eta abarren arabera.
- Mapatutako osasuna sustatzeko jarduerak lotzea osasuna sustatzeko proiektu eta programa korporatiboekin.
- Osasuna sustatzeko jarduerak ebaluatzeko ereduaren sistematizazioan aurrera egitea.
- Balio gehien ematen duten ekimenak ezagutzea, beste LMAU batzuetan erreproduzitu ahal izateko.
- Zentroetatik osasuna sustatzeko jardueren buru diren arlo jakin batzuetako profesional adituak identifikatzea.
- Osasuna sustatzeko jardueren eskaintza biztanleriaren profilerari egokitzen aurrera egitea, LMAUko zerbitzu-zorro korporatiboaren eta biztanleriaren profilararen arteko konparazio-txosten bat eginez.

---

### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

Osakidetzako LMAU guztiak bilduko dituen ikerketa deskriptibo multizentriko bat egitea, Osakidetzako LMAUek bultzatutako osasuna sustatzeko jardueren mapaketa eta sailkapena egiteko. **III. ERANSKINEAN** ikus daiteke jardueraren horiek sailkatzeko irizpideen hurbilketa bat.

## 2.2 EKINTZA: Beste eragile batzuek bultzatutako osasuna sustatzeko baliabideak, proiektuak eta jarduerak mapatzea

Osasuna sustatzeko jarduerak ez dira soilik osasunaren sektoretik sustatzen, badaude beste sektore batzuek bultzatutako ekimen ugari ere, zeinak komunitateen osasunean eta ongizatean eragin zuzena duten. Helburua da jakitea osasun-zentrotik kanpo zer eragilek, baliabidek eta ekintzek sor dezaketen aberastasuna eta eragin positiboa komunitatean, eta baliabide komunitarioen erregistro batean sartu ahal izatea.

Ekintza honek abiapuntuko egoera aztertzea planteatzen du, osasunean eta ongizatean eragina duten sustapen-jarduerei dagokienez (beste sektore batzuek edo komunitateko protagonistek sustatzen dituzten jarduerak), eta zer egiten duten ezagutzeko, sektore arteko lankidetzak- eta koordinazio-aukerak sortzeko.

### HELBURUA

**4. HELBURU OPERATIBOA.** Oinarrizko osasun-eremuan dauden baliabide komunitarioak identifikatzea.

**1. HELBURU OPERATIBOA.** Lankidetzak eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

### DESKRIBAPENA

#### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasun publikoko eskualde-zerbitzuak.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziako pertsona.
- LMAUetako profesionalak eta kudeaketa-taldea.
- Udal-teknikariak.
- Osasuna sustatzeko jarduerak egiten diren sektore jakin horretako pertsonak.

## **EGINKIZUNEN ETA MUGARRIEN DESKRIBAPENA**

OOKSak, LMAKZren lanketa komunitarioko erreferentzia-taldearekin lankidetzan, eragile komunitarioek, udalek, aldundiek, hezkuntzak eta abarrek bultzatutako osasuna eta baliabide komunitarioak sustatzeko jarduerak, programak edo proiektuak identifikatuko ditu.

Erregistro hori baliagarria izango da LMAUetako profesionalak baliabide eta aukera horien berri izan dezaten, eta baliabide eta aukera horien onuradun izan daitezkeen pertsoneri gomendatu edo bideratu ahal izan diezaieten.

Era berean, ekintza honek inguruko erreferenteekin lantaldeak ezartzea erraztuko du.

---

## **ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK**

Dauden baliabide komunitarioen erregistroa identifikatzea eta sortzea, eta LMAUetako profesionalen eskura jartzea.

Identifikatutako baliabideak Euskadi Aktiboan erregistra daitezen sustatzea, tresna horretan informazioa eguneratzen laguntzeko.

---

### 3. ILDO ESTRATEGIKOA:

## Orientazio komunitarioa hiru mailetan bultzatzea Lehen Mailako Arretatik

#### HELBURUA

**3. HELBURU NAGUSIA.** Lehen Mailako Arretatik eta Osasun Publikoko egiturekin eta beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzea bultzatzea, orientazio komunitarioko hiru mailetan.

#### DESKRIBAPENA

Ildo estrategiko honek alderdi operatiboan lan egiten du eta ekintza zehatz batzuk proposatzen ditu LMAUetatik egiteko, dauden hiru orientazio-mailetan, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzea sustatzera bideratuta.

Orientazio komunitarioko lehen maila LMAUen ohiko praktika asistentzian kokatzen da, non, batetik, profesionalak eguneroko arazoei arreta emateko ikuspegia txertatzen duten aintzat hartuz osasunaren baldintzatzaile sozialak, eta bestetik, zerbitzua ematen dioten komunitatearen populazio-ezaugarriak ezagutzen dituzten. Kontsulten espazio pribatua baliatu nahi da pertsonarengan zentratutako lanketa bat egiteko, nork bere burua zaintzeko duen gaitasuna sustatzeko, bizi-prozesuak desmedikalizatzeko eta aktibo komunitarioen gomendioa sistematizatzeko, plan terapeutikoen parte gisa.

Orientazio komunitarioaren bigarren mailari dagokionez, taldean hori garatzeaz arduratzen direnak hauek dira: sektore bakarrean, sektore artean eta taldeekin lan egiten duten pertsonak, komunitateari edo talde txikiei zuzendutako hezkuntza-ekintzak eta osasuna sustatzeko ekintzak sustatuz.

Horren helburua pertsonak osasun-arloan alfabetatzeko ikaskuntza-aukerak sortzea da. Baliabide pertsonalak indartzea du xede, ikaskuntza-eredu esanguratsuetan oinarritzen den eta osasunaren baldintzatzaile sozialen ikuspegia aintzat hartzen duen talde-ekintzaren bidez. Garrantzi berezia du bizitzako zenbait etapatan, hala nola haurtzaroan, nerabezaroan eta zahartzaroan, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonengan eta zaintzaileengan, baita gizarte-zaugarritasun handieneko egoeretan daudenengan ere (7).

Orientazio komunitarioko hirugarren mailatik, berriz, sektore arteko eta diziplinarteko lana egiten da tokiko lurraldeko eragile askorekin eta herritarrekin haiekin ere, zeregin garrantzitsua baitute komunitatearen ongizatea hobetzeko ekinean. Helburua da LMAUek esleitutako populazioen ezaugarriak ezagutzea eta beren komunitateetako osasunerako aktiboak identifikatzea, bai eta diagnostiko komunitarioak egiteko bidean aurrera egitea eta LMAko taldeko pertsona batzuek tokiko prozesu komunitario batean parte hartzea ere.

Lan operatibo hori, orientazio komunitarioko hiru mailetara bideratua, espazio ireki gisa planteatzen da, sortzen diren beharrei lotua, Osasun Publikoa arriskuan jartzen duten eta hedatzea eragotzi behar den gaixotasunei dagokienez, hori saihesteko, lanketa komunitarioa egin, prebentzio-neurriak ezarri eta bestelako neurriak hartu behar baitira. Kasurako, kutsatzeko gaitasun handia duten gaixotasun transmitigarrieekin gerta daiteke hori (adibidez, komunitateko ikastetxeei informazioa ematea, ikasgeletan kasuak agertzen direnean gaixotasun infekzioso bat zabal dadin saihesteko).

---

### 3.1 EKINTZA: Gure lanaren xede den biztanleria aztertzea, biztanleriaren osasun-profilari buruzko txostenak eginez (diagnostiko komunitarioarako hurbilketa kuantitatiboa)

Helburua da LMAUei atxikitako populazioen diagnostiko komunitarioaren hurbilketa kuantitatibo bat egitea.

#### HELBURUA

**5. HELBURU OPERATIBOA.** LMAUetako profesionalak zerbitzua ematen duten populazioetan eragina izan dezaketen osasun-profila eta osasunaren baldintzatzaile sozialak ezagut ditzaten sustatzea.

#### DESKRIBAPENA

##### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasun publikoko eskualde-zerbitzuak.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziako pertsona.
- LMAUetako profesionalak eta kudeaketa-taldea.
- Lanketa komunitarioarako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.
- Tokiko gobernantza-sistemen arduradunak edo koordinatzaileak, halakorik dagoen lekuetan.

#### EGINKIZUNAK

EK-k urtero partekatuko ditu bere ardurapeko LMAUetako biztanleria-datuen analisiari buruzko txostenak, hain zuzen ere, profesionalak beren OOEan artatzen duten biztanleriaren ezaugarriak ezagutzera hel daitezen, eta informazio hori zentroetan lanean hasten diren profesional berrien harrera-eskuliburuetan sar dadin.

Txosten horiek lantaldean aurkezteak diziplina anitzeko bilera bateratua egitea ahalbidetuko du osasun-zentroko profesionalen artean, zentroko Erreferente komunitarioa eta erreferentziazko Erizain Komunitarioa buru direla.

Txosten horiek osasun-zentroetako langile guztien eskura egongo dira, eta Osasun Planean lehenetsitako arazoan ezaugarri demografikoei, sozioekonomikoei, prebalentziari eta artatutako populazioen osasun-egoerari buruzko informazioa emango dute. Gainera, auzoetako historia berriari edo tokiko asoziazionismoari buruzko datuekin aberastu ahal izango dira.

Txosten horiek abiapuntu hartuta egingo dute Koaderno Komunitarioa LMAUetan. Informazio-iturriak **IV. ERANSKINEAN** deskribatu dira.

---

### 3.2 EKINTZA: Osasunerako aktiboen eta dauden baliabide komunitarioen gomendioa

Jarduera asistentzialari esker, aukera dago identifikatzeko arazo komunak dituzten pertsonak, eta arazo komunak izanik modu eraginkorragoan aurre egin dakizkiekeenak, taldean edo baliabide terapeutiko ez-farmakologikoekin aurre eginez gero: jarduera fisikoa, paseo osasungarriak, gurasotasun positiboko tailerrak, sukaldaritza osasungarriko ikastaroak, nahi gabeko bakardade-egoeran dauden pertsonen laguntzeko boluntarioritza, eta abar. Horri heltzeko, komunitatean eskuragarri dauden baliabideak erabil daitezke, pertsonak trebatzeko, beren patologien maneian edo bizitzako etaparen baten trantsizioan, eta, bide batez, bizi-prozesuen gehiegizko medikalizazioa saihesteko.

#### HELBURUA

**6. HELBURU OPERATIBOA.** Lehen Mailako Arretako kontsultetatik osasunerako aktiboen eta baliabide komunitarioen gomendioa sustatzea.

#### DESKRIBAPENA

##### ARDURADUNAK:

- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziako pertsona.
- LMAUetako profesionalak eta kudeaketa-taldea.
- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Informatika Zerbitzua.

---

##### XEHETASUNAK/FUNTZIOAK:

Euskadi Aktiboa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskaintzen duen proiektu bat da, Osasun Publikoko Zuzendaritzak bultzatua, osasunaren ikuspegi positiboa sustatzen duena, indarguneak edo komunitateetako aktiboak identifikatuz. Geolokalizazioaren bidez aktibo horiek ikusarazten laguntzen duen plataforma bat du.



Aplikazio hori dagoeneko eskuragarri dago LMAko profesionalentzat (esteka honen bidez ikus daiteke: [Euskadi Aktiboa - Bizimodu osasuntsua - Osasun Saila - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)), eta osasunerako jardueri eta baliabideei buruzko informazioa eskaintzen da bertan. Baliabide hori erabiltzen eta zabaltzen laguntzeko, aurrerago Osabide Global (OG) historia klinikoan integratzeko asmoa dago, horrela, Osakidetzako profesionali aukera emango baitzaie aktiboen gomendioa kontsultatik bertatik egiteko, “social prescribing” bidez.

Osasunerako aktiboak gomendioaren sistematizazioak bi mailatan izan nahi du eragina:

- Osasun-gaixotasun prozesuei ekiteak, banakako eta komunitateko baliabideak indartuz, eguneroko bizitzako egoeren aurrean desmedikalizazioa sustatuko du.
- Aplikazioa eguneratuta mantentzeak eta baliabide horri edukiak txertatzeak, zerbitzua ematen zaien komunitateetan erabilgarri dauden baliabideak eta jarduerak ezagutzea ekarriko du, eta, horrek, berez, sektore arteko aliantzak ezartzea eta tokiko sare-lana sustatzea erraztuko du.

---

## ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

Euskadi Aktiboa aplikazioan erregistratutako komunitateko jardueren eta baliabideen erabilerari, erregistroari eta gomendioari buruzko hedapen- eta prestakuntza-programa bat zabaltzea.

Aktiboen gomendio sistematikoa (social prescribing) kontsultetatik.

Euskadi-Aktiboa aplikazioa OG historia klinikoan txertatzea.

---

### 3.3 EKINTZA: Koaderno Komunitarioa

Koaderno Komunitarioa zentroaren berrorientazio komunitarioaren oinarria da; horri esker, LMAUetan sektore bakarreko eta/edo sektore arteko osasuna sustatzeko jardueren programazioa izango dute, urtean zehar bete beharrekoa. Aragoiko Osasun Sistemako Arreta Komunitarioko Estrategiaren tresna bat da, Agenda Comunitaria izenekoa, gureru egokitua, eta lagungarria izan daiteke LMAUetan jarduera horiek planifikatzeko(41).

Koaderno Komunitario honetan definitutako jardueren eta ekitaldien programazioa, gainera, tokiko espazioak eta baliabideak aprobetxatuz zabaldu ahal izango da (gizarte-etxeak, adinekoen zentroak, ikastetxeak, etab.), eta herritarrei zuzendutako kanal digitalak erabiliz ere (sare sozialak, Osakidetzaren webgunea, etab.). Hain zuzen ere, osasun-zentroek bultzatutako jardueren eskaintza sustatu eta ikusarazi nahi da, bai eta herritarrak erakarri eta haien parte-hartzea areagotu ere.

## HELBURUA

**7. HELBURU OPERATIBOA.** LMAUetan Koaderno Komunitarioa ezartzea, osasuna sustatzeko jarduerak planifikatzeko tresna gisa.

## DESKRIBAPENA

### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

Edukia Erizain Komunitarioaren, LMAUko erreferentziazko pertsonaren eta LMAUetako profesionalen eta tokiko gobernantza-sistemen (halakorik badago eta parte hartzen badute) artean adostuko da.

---

### EGINKIZUNAK ETA MUGARRIAK

Haren diseinuak eta definizioak hausnarketa- eta lankidetzaprozesu bat eskatuko du, LMAUan sareko eta diziplina anitzeko lana, beste eragile batzuekiko sektore arteko lankidetzeta eta tokiko elkarte-sarea sustatu nahi baitira.

Oinarrizko osasun-eremuko populazioaren ezaugarrien, zentroan jada ezarrita dauden osasuna sustatzeko jardueren eta komunitateak berak sentitutako premien arabera diseinatuko da. **V. ERANSKINEAN** jasota dator.

Koaderno Komunitarioan, LMAUtik egin beharreko osasuna sustatzeko jardueren programazioaz gain, inguruko erakundeek bultzatutakoak ere sartuko dira. Egutegi bat osatuko da bertan, osasunarekin zerikusia duten ekimen, tailer, ikastaro, saio eta mugarri nabarmenekin; denak ere, komunitateari eskainitakoak eta LMAUek sustatutakoak.

Koaderno Komunitarioan adostutako jardueren programazio guztia osasun-zentroko informazio-pantailetan argitaratuko da, bertara joaten den edonork ikus ditzan.

---

### 3.4 EKINTZA: LMAUetatik ikuspegi komunitarioa duen lana ahalik eta gehien bultzatzea

Helburua da lanketa komunitarioan aurrera egiten jarraitzea eta LMAU bakoitzak bere potentziala maila gorenean garatu ahal izatea, Osakidetzan zer egiten den eta beste sektore batzuetatik zer egiten den ezagutuz, bat-etortzeak aitortuz, eta sektore arteko esku-hartzeak eta herritarren partaidetza bultzatuz.

#### HELBURUA

**8. HELBURU OPERATIBOA.** LMAUetan osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea, eta bertako profesionalak prozesu komunitarioetan eta tokiko gobernantza-sistemetan parte har dezaten bultzatzea.

#### DESKRIBAPENA


##### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasuna sustatzeko jarduerak egiten diren sektore jakin horretako pertsonak.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziako pertsona.
- LMAUetako profesionalak eta kudeaketa-taldea.
- Tokiko gobernantza-sistemen arduradunak, halakorik dagoen lekuetan.

---

##### EGINKIZUNAK ETA MUGARRIAK:

Eskema honek LMAUetako egoerak irudikatzen ditu, lanketa komunitarioari dagokionez:



**14. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO ESKEMA, LMAUETAKO EGOEREN INGURUKOA, LANKETA KOMUNITARIOARI DAGOKIONEZ.

Ekintza honen xedea osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea da oraindik egiten ez diren LMAUetan, eta sektore arteko lankidetzaz eta koordinazio-harremanak sustatzea tokiko inguruneetan. Horrela, komunitate batean protagonista bat baino gehiago ari bada osasuna sustatzeko sektore bakarreko jardueraren bat sustatzen, eta batzuen eta besteen jarduerak bat badatoz gaiari dagokionez edo antzekoak badira, aliantza bat sortu ahal izango da haien artean, eta bidean aurrera egiten jarraitu, egoera batetik bestera.



**15. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO ESKEMA, EGOERA POSIBLEEI ETA EK-K HORIEN GAINEAN EGIN DEZAKEENARI BURUZKOA.

Ikuspegi horretatik, komunitateari zuzendutako sustapen-jarduerak ahalik eta gehien garatzea planteatzen da, bai eta sektore arteko eta/edo herritarren parte-hartzea ere. Operatibotasunari dagokionez, horrek esan nahi du baloratu ahal dela sektore bakarreko zein jarduerak izan daitezkeen sektore arteko jarduerak bat, edota zein kasutan –LMAUaren heldutasunaren, esperientziaren eta gaikuntzaren arabera– planteatu daitezkeen prozesu komunitario bat definitzea eta prozesu horretan parte hartzea, eta tokiko gobernantza-sistema bat garatzea edo finkatzea.

### 3.5 EKINTZA: Prozesu komunitarioak bultzatzea. Aktiboetan oinarritutako arreta komunitarioa

LMAUetatik, osasungintzako profesionalak prozesu komunitario aktiboren batean inplika daitezke beren OOEan, eta inguru hurbileko tokiko gobernantza-sistemen parte izan daitezke, eta, horrelako sistemarik egon ezean, horiek sustatzea pentsatu. Betiere, elkarlanak sortuz Osasun Publikoarekin eta beste sektore batzuekin (hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, tokiko eragileak, etab.) eta antolatuta dagoen komunitatearekin ere.

#### HELBURUA

**8. HELBURU OPERATIBOA.** LMAUetan osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea, eta bertako profesionalak prozesu komunitarioetan eta tokiko gobernantza-sistemetan parte har dezaten bultzatzea.

#### DESKRIBAPENA

##### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean izendatutako erreferentziazko pertsona.
- Osasun publikoko eskualde-zerbitzuak.

---

#### EGINKIZUNEN ETA MUGARRIEN DESKRIBAPENA

2015-2016 urteetan egindako prestakuntza- eta ekintza-prozesuari berriro ekitea, Osasun Publikoko eta Osakidetzako langileen parte-hartzearekin, eta LMAUetako profesionalak aktiboetan oinarritutako lanketa komunitarioaren metodologiari buruzko aurreko prestakuntza-saioretan parte hartzeko aukera emanez, eta beren osasun-zentroetatik esperientzia zehatzak praktikan jarritz.

---



**16. IRUDIA:** PROZESU KOMUNITARIOAREN ETAPAK. OSASUNA IKUSPEGI KOMUNITARIO BATETIK LANTZEKO GIDA METODOLOGIKOA (3).

### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

LMAUko profesionali laguntzea tokiko gobernantza-sistemak sortzen edo horietan parte hartzen.

Prozesu komunitarioari buruzko prestakuntza- eta ekintza-saioak berraktibatzea, oinarri hartuta osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa eta erreferentziazko beste gida batzuetan proposatutako metodologia.

### TRESNAK

- ¿Cómo iniciar un proceso de intervención y participación comunitaria desde un centro de salud? De la reflexión a las primeras intervenciones. Programa de Actividades Comunitarias de Atención Primaria (PACAP), Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria (SemFYC)(42).
- Guía para trabajar en salud comunitaria en Asturias (43).
- Osasunari ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetza (25).
- Acción comunitaria para ganar salud. O cómo trabajar en red para mejorar las condiciones de vida (7).

## 4. ILDO ESTRATEGIKOA:

### Lehen Mailako arretatik osasunari ikuspegi komunitariotik heltzeko estrategiak sustatutako helburuak eta ekintzak zabaltzea.

Estrategia horretatik sustatutako ekintzak ezartzearekin batera, hedapen-plan bat garatu behar da, eta lortutako mugarriak eta aurrerapenak barnean eta kanpoan zabaltzeko tresnak eta espazioak txertatu behar dira.

#### HELBURUA

**4. HELBURU NAGUSIA. Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategiari buruzko informazio-trukea eta diziplina, sektore, erakunde eta herritarren parte-hartzea erraztea.**

#### DESKRIBAPENA

Garrantzitsua da kanalak eta espazioak ezartzea, horien bidez ikusarazteko zer egiten ari den, zer aurrerapen egin diren, zer mugarri bete diren, eta abar. Izan ere, funtsezkoa da ezarritako hedapen-espazioak eta -kanalak izatea, lan-sareak finkatzeko eta ezagutza sortzeko.

Barne-mailan, biltegi korporatibo bat osatu nahi da, material, gida, albiste, baliabide metodologiko, LMAUen Koaderno Komunitario eta abarrekin, LMAUetako profesionalek eskura izan dezaten hori guztia, sareko lana sustatzeko eta ezagutza partekatuko iturri gisa baliatzeko.

Kanpo-mailan, webguneak konfiguratzea funtsezkoa da herritarrek beren LMAUetatik osasuna sustatzeko egiten dituzten jardueren eskaintza ezagut dezaten, eta jakin dezaten herritarren partaidetzarako guneak non eta nola aurkitu, bai eta proiektu eta prozesu komunitario aktiboak eta bestelakoak ere.

## 4.1 EKINTZA: Establecer canales y espacios para la difusión interna

### HELBURUA

**9. HELBURU OPERATIBOA.** Barne- eta kanpo-hedapenerako informazio kanal bat ezartzea.

### DESKRIBAPENA

#### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Zuzendaritza Nagusiko eta Osasun Saileko Komunikazio Zerbitzua.

#### EGINKIZUNAK ETA MUGARRIAK

Estrategiaren ezarpenetik lortutako helburuak, ekintzak eta aurrerapenak hedatzeko planaren helburua da:

- Osasuna ikuspegi komunitariorik lantzeko estrategiari eta horren barruko ekintza guztiei buruzko informazioa ematea, bai LMAren eta Ospitaleko Arretaren eremuko profesionaleri, bai osasun-sektoreko beste erakunde edo zerbitzu batzuetako profesionaleri.
- OHko programa korporatiboekin, materialekin eta tresnekin lotutako edukiak partekatzea, profesionaleri beren tokiko inguruneetan osasuna sustatzeko jarduerak abian jartzen lagun diezaieten.
- LMAUen Koaderno Komunitarioak partekatzea LMAUen eta Erakunde Sanitarioen artean partekatutako espazio batean.
- Osakidetzaren zerbitzu-erakundeetan lanketa komunitarioaren inguruan bultzatutako jardunbide egokiak ikusaraztea eta partekatzea.
- Ezagutza eta lan-sarea sortzea Osakidetzako erakundeetan.
- Profesionalen arteko partaidetza eta sektore arteko lankidetzaren erraztea.
- Komunitatearen esparruarekin, osasunaren sustapenarekin edo herritarren parte-hartzearekin lotutako ikerketan eta argitalpen zientifikoetan egindako aurrerapenak ikusaraztea.

#### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

Espazioa Osakidetzaren, Lehen Mailako Arretaren eta/edo Osasun Sailaren web-orrietan.

## 4.2 EKINTZA: Kanpo-hedapenerako kanalak eta espazioak ezartzea

### HELBURUA

**9. HELBURU OPERATIBOA.** Barne- eta kanpo-hedapenerako informazio kanal bat ezartzea.

### DESKRIBAPENA

#### INPLIKATUTAKO ERAGILEAK:

- Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea, osasunaren prebentzio eta sustapen arloa, LMAKZ.
- Osakidetzako Osasun Komunitarioko Sarea osatzen duten Erizain Komunitarioak.
- Zuzendaritza Nagusiko eta Osasun Saileko Komunikazio Zerbitzua.

#### EGINKIZUNAK ETA MUGARRIAK

Estrategia horren ezarpenetik lortutako mugarriak eta aurrerapenak kanpoan zabaltzeko planak honako helburu hauek ditu:

- Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko strategiari eta horren barruko ekintza guztiei buruzko informazioa ematea herritarrei eta beste eragile eta erakunde batzuei.
- Zentroetako informazio-pantailetan, LMAUen Koaderno Komunitarioetan zehaztutako programazioa partekatzea.
- Profesionalen arteko parte-hartzea, sektore arteko lankidetzak eta herritarren parte-hartzea erraztea.

#### ERREFERENTZIAZKO JARDUKETAK

Espazioa Osakidetzaren, Lehen Mailako Arretaren eta/edo Osasun Sailaren web-orrietan.






**Estrategiaren ekintzak  
garatu eta ezartzeko  
kronograma**

# Estrategiaren ekintzak garatu eta ezartzeko kronograma

Honako denbora-lerro honetan grafikoki eta sintetikoki jaso dira estrategia horren diseinuari, garapenari eta hedapenari buruzko mugarri adierazgarrienak.



**17. IRUDIA:** GEUK EGINDAKO DIAGRAMA, ESTRATEGIAREN DISEINUARI, GARAPENARI ETA HEDAPENARI BURUZKO MUGARRI ADIERAZGARRIENEN INGURUKOA.






**Osasuna ikuspegi  
komunitariotik lantzeko  
estrategiaren ebaluazioa**

# Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategiaren ebaluazioa

Estrategia garatzeari begira, hainbat motatako (egitura, prozesua eta emaitza) adierazleak diseinatu behar dira, horien bidez, planteatutako 4 ildo estrategikoen deskribapenean proposatutako ekintzen ezarpena neurtzeko. Adierazle horiek lagungarri izango dira monitorizazio- eta ebaluazio-lanetan, erakundeen barruan ekintzak noraino ezarri diren neurtzeko eta erakundeek biztanleen osasunaren sustapena etengabe hobetzearekin duten konpromisoa aztertzeko ere.

Taula hauetan jasotako adierazleetako batzuk kontratu-programan txertatzeko ustea dago, 2024tik aurrera.



## Lehen mailako arretako taldeek osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategiaren ezarpenaren ebaluazioa:

### HELBURU OPERATIBOAK

1. Lankidetzako eta koordinatutako lana makro, meso eta mikro mailan erraztu eta sustatzea.

2. LMAUetan antolakuntza-gaitasuna sortzea, testuinguru eta biztanle-talde desberdinen beharrei eta eskaerei modu koherentean eta iraunkorrean erantzuteko.

### EKINTZAK

Osakidetzako Osasun Komunitarioa Koordinatzeko Zuzendaritza Batzordea sortzea.

Lanketa komunitariorako erreferentzia-taldea sortzea, Osasunaren prebentzio eta sustapen arloan, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzan.

Konfiguratzeko Osakidetzako Osasun Sare Komunitarioa eta Erizain Komunitarioa ESletan.

### ADIERAZLEAK

(Prozesua) Zuzendaritza Batzordearen topaketa kopurua urte natural batean.

(Emaizta) Zuzendaritza Batzordeak planifikatutako ekimenen kopurua urte natural bakoitzeko.

(Prozesua) Erreferentzia-taldearen eta erakundeetako ordezkarien (udaleko teknikariak, aldundiak, hezkuntzako ordezkariak, unibertsitateak) arteko topaketa kopurua urte natural batean.

(Prozesua) Erreferentzia-taldearen eta OOKSren arteko bilera kopurua.

(Egitura) Estrategian ESI bakoitzeko biztanleriarentzat kalkulatu den EK kopurua baduten ESlen % (MEDEA doikuntza eta sakabanaketa).

(Prozesua) Erreferentzia-taldearen eta OOKSren topaketa kopurua erakundeetako ordezkariekin (udaleko teknikariak, aldundiak, hezkuntzako ordezkariak, unibertsitateak) urte natural batean.

**HELBURU  
OPERATIBOAK**

**EKINTZAK**

**ADIERAZLEAK**

	<p>Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAU bakoitzean erreferentziako pertsona bat izendatzea.</p>	<p>(Egitura) Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAUko erreferentziako pertsona bat duten LMAko taldeen %, urteko.</p> <p>(Prozesua) Erreferentziako EKren eta osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko LMAUko erreferentziako pertsonaren arteko topaketa eta bilera kopurua.</p>
<p>3. LMAU bakoitzeko populazioaren osasun-profilari egokituta, osasuna sustatzeko jarduerak modu ekitatiboan betetzeko zerbitzu korporatiboen zorro bat definitzea.</p>	<p>Ikerketa deskriptiboa, osasuna sustatzeko eskainitako jardueren artean LMAk zeinetan parte hartzen duen jakiteko eta LMAUetako profesionalak toki-eremuko prozesu komunitarioetan duten parte-hartzea ezagutzeko.</p>	<p>(Prozesua) Ikerketa deskriptiboa egiten den LMAUen kopurua.</p> <p>(Prozesua) Mapaketaren eta ikerketa deskriptiboaren emaitzen aurkezpena eta osasuna sustatzeko jardueren sailkapena.</p> <p>(Prozesua) LMAUko zerbitzu-zorro korporatiboaren eta biztanleriaren profilararen arteko txosten konparatiboaren kopurua.</p> <p>(Emaitza) Osasuna sustatzeko jarduerak ebaluatzeke eredu bat egitea.</p>
<p>4. Oinarrizko osasun-eremuan dauden baliabide komunitarioak identifikatzea.</p>	<p>Beste eragile batzuek bultzatutako osasuna sustatzeko baliabideak, proiektuak eta jarduerak mapatzea.</p>	<p>(Egitura) Estrategia ezarri zenetik Euskadi-Aktiboan egindako jarduera eta baliabide komunitarioen erregistro berrien kopurua.</p> <p>(Prozesua) EKren eta beste eragile batzuen artean izandako sektore arteko topaketa kopurua urte natural batean.</p> <p>(Emaitza) Oinarrizko osasun-eremuetako baliabide eta aktibo komunitarioei buruzko txostenak dituzten LMAUen %.</p>

## HELBURU OPERATIBOAK

## EKINTZAK

## ADIERAZLEAK

5. LMAUetako profesionalak zerbitzua ematen duten populazioetan eragina izan dezaketen osasun-profila eta osasunaren baldintzatzaile sozialak ezagut ditzaten sustatzea.

Gure lanaren xede den biztanleria aztertzea, biztanleriaren osasun-profilari buruzko txostenak eginez (diagnostiko komunitariorako hurbilketa kuantitatiboa)

(Prozesua) Biztanleriaren osasun-profilari buruz egindako txosten kopurua.

(Emitza) LMAUetako biztanleriaren osasun-profilari buruzko txostena aurkeztea (erantsi bileraren akta).

6. Lehen Mailako Arretako kontsultetatik osasunerako aktiboen eta baliabide komunitarioen gomendia sustatzea.

Osasunerako aktiboen eta dauden baliabide komunitarioen gomendia

(Egitura) Euskadi Aktiboan jada erregistratutako jarduera eta baliabide komunitarioen eguneratze kopurua, estrategia ezarri zenetik.

(Emitza) Beren kontsultetatik Euskadi Aktiboa erabiltzen duten LMAko profesionalen %.

7. Koaderno Komunitarioa ezartzea LMAUetan, osasuna sustatzeko jarduerak planifikatzeko tresna gisa.

Koaderno Komunitarioa.

(Emitza) Koaderno Komunitarioa osasuna sustatzeko jarduerak planifikatzeko tresna gisa ezarri duten LMAUen kopurua.

(Emitza) Koaderno Komunitarioa beren zentroetako pantailetan zabaltzen duten LMAUen %.

(Emitza/Prozesua) Beren Koaderno Komunitarioan jasotako lanketa komunitariorako plangintzaren betetze-maila ebaluatzen duten LMAUen %.

(Emitza) Koaderno Komunitarioan jasotako lanketa komunitariorako plangintza osatzen duten LMAUen %.

## HELBURU OPERATIBOAK

8. LMAUetan osasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea, eta bertako profesionalen prozesu komunitarioetan eta tokiko gobernantza-sistemetan parte har dezaten bultzatzea.

## EKINTZAK

LMAUetatik ikuspegi komunitarioa duen lana ahalik eta gehien bultzatzea.

Prozesu komunitarioak bultzatzea. Aktiboetan oinarritutako arreta komunitarioa.

## ADIERAZLEAK

(Prozesua) Urte naturalean osasuna sustatzeko sektore bakarreko jardueren bat gutxienez egiten duten LMAUen %.

(Emaitza) Urte naturalean osasuna sustatzeko sektore bakarreko jardueraren bat egiten hasi diren LMAUen % (0 egoeratik 1 egoerara igarotakoak).

(Emaitza) Urte naturalean osasuna sustatzeko sektore arteko jardueraren bat egiten hasi diren edo parte hartu duten LMAUen % (1 egoeratik 2 egoerara igarotakoak).

(Emaitza) Urte naturalean ekintza komunitario edo prozesu komunitario bat egiten hasi diren edo parte hartu duten LMAUen % (2 egoeratik 3 egoerara igarotakoak).

(Emaitza) Osasuna sustatzeko jardueren kopurua handitu duten LMAUen %, zein Egoeratan dauden kontuan hartu gabe (0 egoera adierazle honetatik kanpo utzi da).

(Egitura) Parte hartzen zuten tokiko gobernantza-sistema guztietan parte hartzen jarraitzen duten LMAUen %.

(Egitura) Parte hartzen zuten prozesu komunitario guztietan parte hartzen jarraitzen duten LMAUen %.

## HELBURU OPERATIBOAK

## EKINTZAK

## ADIERAZLEAK

9. Barne- eta kanpo-  
hedapenerako  
informazio kanal bat  
ezartzea.

Barne-hedapenerako  
kanalak eta espazioak  
ezartzea.

(Prozesua) Urte natural  
batean LMAUak parte hartu  
duen prestakuntza- eta  
ekintza-saioen kopurua.

(Emaita) Tokiko  
governantza-sistema bat  
egiten hasi diren eta/edo  
parte hartu duten  
LMAUen %.

(Emaita) Prozesu  
komunitario bat egiten hasi  
diren eta/edo parte hartu  
duten LMAUen %.

(Emaita) Urte natural  
batean egiten diren  
prestakuntza- eta ekintza-  
saioen kopurua.

(Emaita) Prestakuntza- eta  
ekintza-saioetan parte  
hartzen duten LMAUen %.

(Prozesua) Osasun  
sanitarioko  
profesionalentzako  
webgune bat sortzea,  
osasun komunitarioari  
buruzko informazioa  
zabaltzeko.

(Emaita) Osasun-sektoreko  
profesionalei Estrategia  
Komunitarioari buruzko  
informazioa emateko egin  
diren saioen kopurua.

(Emaita) Osasuna  
sustatzeko programa  
korporatiboekin lotutako  
edukiak/materialak/tresnak  
partekatuzeko LMAUetan  
egin diren saioen kopurua.

	<p>(Eraitza) Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko Jardunbide Egokien Jardunaldiak egitea.</p> <p>(Eraitza) Osasun komunitarioari eskainitako webguneko atala erabiltzen duten Osakidetzako profesionalen %.</p> <p>(Eraitza) Osasun komunitarioari eskainitako webguneko ataleko profesionalen kontsultakopurua.</p> <p>(Eraitza) Urte natural batean osasun-sektoreko profesionalak osasun komunitarioari buruz egindako argitalpen edo dibulgazio zientifikoekopurua.</p>
Kanpo-hedapenerako kanalak eta espazioak ezartzea.	<p>(Eraitza) Osasun-sektoretik kanpoko profesionali Estrategia Komunitarioari buruzko informazioa emateko egin diren saioen kopurua.</p> <p>(Eraitza) Urte natural batean osasun-sektoretik kanpoko profesionalak osasun komunitarioari buruz egindako argitalpen edo dibulgazio zientifikoekopurua.</p>

**3. TAULA:** HELBURU OPERATIBOAREN ETA EKINTZAREN ARABERAKO ADIERAZLEAK.

# Laguntza teknikoak eta metodologikoak

Laguntza teknikoak Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordeak antolatzen ditu, hainbat zerbitzu eta zuzendaritzaren laguntzarekin.

## Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren beraren zerbitzuen laguntza:

LMAKZtik, osasunaren prebentzio eta sustapen arloko lanketa komunitarioarako erreferentzia-taldea izango da estrategiaren sustatzailea, eta honako hauekin koordinatuta lan egin beharko du:

- Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa, Arreta Komunitarioari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-plana antolatu eta garatzeko.
- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Erizaintzako Zuzendariordeak.
- Zuzendaritza Nagusiko Komunikazio Zerbitzua, aurrerapausoen eta albisteen berri emateko, hainbat populazio-talderentzako talde-osasunerako heziketarako programa eta tailerretako materialekin web-gordailu bat eratzeko eta Osakidetzako profesionalen eskura jartzeko, Koaderno Komunitarioak argitaratzeko, etab.
- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Informatika Zerbitzua, Euskadi-Aktiboa plataforma Osabide Globalen historia klinikoan integratzearekin lotutako garapen informatikoa hedatu eta ezartzeko.
- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko Kalitateko eta Informazio Sistemetakoa Zuzendariordeak

## Osasun Saileko eta Osakidetzako programa korporatiboen arduradunen laguntza:

- Paziente Bizia/Paciente Activo autozainketako eta autokudeaketako heziketa-programa bat da, parekoek emandakoa, Stanfordeko Unibertsitatearen metodologian oinarrituz. Programa horretan, prestakuntza/gaikuntza metodoak aplikatzen dira eta osasunerako entrenamendua eta heziketa ere, nor bere osasunaren zaintzan izan behar duen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko. Hainbat tailer egiten dira aurrez aurre eta online.

- Osasun Eskola webgune informatiboa da. Bertan, osasun-arloko alfabetatze- eta heziketa-jarduera garatzen da formatu digitalean. Nabigatzeko interfaze erraza du eta diseinu erakargarria, eta bertatik autokudeaketarako ezagutzak eta tresnak transmititzen dira (deskargatu daitezkeen dokumentuak, bideoak, audioak, inkestak, etab.).
- Haurren Osasunerako Programa (HOP). Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasun-programa, prebentzioa eta osasunaren sustapena helburu nagusitzat dituena. Euskadiko osasun-zentroetako pediatria-taldeek haien ohiko jardunean gauzatzen duten programa da, LMAko sarean egituratutako bisita- eta jarduera-sistema antolatu baten bidez garatzen dena.
- Adineko pertsoneri Arreta emateko Plana (AAP). 70 urte edo gehiago dituzten pertsonentzako arreta-plana. Helburua desgaitasuna prebenitzea edo atzeratzea da, norik bere gaitasun funtzionalari eustea sustatuz. Horretarako, alda daitezkeen, eta, beraz, esku-hartzearen xede diren faktoreetan eragiten du planak.
- “Euskadi tabako-kerik gabe” programa. Euskadin tabakismoa murrizteko estrategia. Helburua: inor ez dadila egon tabako-kearen eta eratorritako produktuen eraginpean. Programan Osasun Saitetik eta Osakidetzatik bultzatutako politika integratuak proposatzen dira, eragin sinergikoarekin (44).
- Adingabeak eta Alkohola programa. Programa honek modu holistikoa hiltzen dio alkohol-kontsumoaren arazoari. Programaren arabera, gehiegizko kontsumoa adin-tarte eta gizarte-talde batzuetan egon arren, adin eta gizarte-talde guztietako pertsonen parte-hartzea eta erantzukizuna eskatzen du arazo horrek. Horregatik, programan, biztanleria osoaren erantzukizuntzat hartzen da gazteen alkohol-kontsumoa prebenitzea (45).
- Odontologia-zerbitzuen zorro berria eta Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI). Osasun Sailaren eta Osakidetzaren programa da, eta itundutako dentista-talde handi baten lankidetzarekin gauzatzen da. Programari esker, 7 eta 15 urte bitarteko haur guztien hortz-arreta doan eskaintzen da, eta haurren aho-hortzen osasuna eta osasun orokorra bermatzen laguntzen da.
- Osakidetzak sustatutako ibilbide asistentzialen arduradunak.
- Mugiment. EAeko hainbat udalerrik eta erakundek sustatutako lankidetzaproiektua, euskal gizartea aktiboa izatea lortu nahi duena. Proiektu horretan, jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarietara murriztera bideratutako ekimenak batzen dira; batik bat, aktiboak ez direnak aktibo bihurtzeko neurriak lehenesten dira.
- Osasun Sailak/Osakidetzak sustatutako baheketa-programak.

- Zerbixeko minbizia bahetzeko programa
- Koloneko eta ondesteko minbizia prebenitzeko programa
- Bularreko minbizia goiz detektatzeko programa

## Osasun Saileko zuzendaritzen laguntza:

- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza, honako hauekin lotutako gaietan:
  - Osasunaren Behatokia
  - Biztanleriaren Osasun Buletinak: OSAGIN
  - EAEko Osasun Inkesta (EAEOI)
  - Beste populazio-erregistro batzuk (heriotza-tasa, minbiziaren erregistroak, haurdunaldien borondatezko eteteak, etab.)
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza, honako hauekin lotutako gaietan:
  - Osasun publikoko estrategiak eta programak.
  - Egoera aztertzea, osasun-lehentasan ezartzea.
  - Prozesu komunitarioak bultzatzea.
  - Prozesu komunitarioen ebaluazioa errazteko tresnak.
  - Abian jarritako prozesu komunitarioen eraginkortasuna ebaluatzea.
  - LMAko profesionalen zuzendutako zeharkako prestakuntzaren edukiak eguneratzea.
  - Osasunerako aktiboen gomendioaren aplikazio informatikoa. Euskadi-Aktiboa.

## Laguntza zientifikoak eta ikerketa:

### Lurraldeko Osasun Ikerketa Institutuak (IIS):

Osasuna sustatzeko jardueri buruzko ikerketaren garrantzia funtsezkoa da ezagutza zientifikoak praktika klinikora eramateko, horiek ezartzeko biderik onenak ezartzeko eta sortzen dituzten osasun-eraketan ebaluazioan aurrera egiteko.

## **Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia. Lehen Mailako Arreta**

Estrategia honetatik sortzen diren ikerketa-ekimenak garatzen lagunduko dute lurraldeko Osasun Ikerketa Institutuek (gaztelaniazko IIS siglarekin ezagunak).

Lurraldeko IIS horietan, LMArekin lotutako hainbat ikerketa-arlo dituzte martxan, hala nola osasuna, prebentzioa, osasunaren sustapena, osasun-zainketak, epidemiologia, klinika eta osasun-zerbitzuak; besteak beste, eremu asistentzian jardunbide egokiak ezartzeko helburuarekin.

### **Familia eta Komunitate Arretako Irakaskuntza Unitate Multiprofesionalak:**

Hiru lurraldeetako bakoitzean dauden irakaskuntza-unitateekin izandako lankidetzaren bidez, aliantzak ezarriko dira egoitzaldi amaierako lanak bideratuta egon daitezen LMAUetan identifikatutako premietan oinarritutako osasuna sustatzeko jarduerekin lotutako ikerketa- eta ebaluazio-ildoak planteatzera.

Beraz, estrategia honek aukera ematen du hiru lurraldeetan ikerketa-ildo partekatu bat sortzeko, irakaskuntza-unitateek gidatuta eta ikerketa-institutuek lagunduta. Horri esker, batetik, ikerketa-ildo horretara batu ahal izango dira egoiliarak, beren prestakuntza-etapan, eta, bestetik, lanketa komunitarioa ebaluatu eta horren gaineko ikerkuntzako galderak egin ahal izango dira.

LMAKZk, gainera, osasuna sustatzeko jarduerak sustatzen dituzten Bottom-up ikerketa-ekimen guztien erregistroa eguneratuta edukiko du intranet korporatiboko Jardunbide Egokien atalean, LMAren eremuan.







## Funtsezko kontzeptuak

**Osasuna sustatzeko jarduerak** terminoa, dokumentu honetan zehar aipatzen dena, termino zabala da.

Herritarren **parte-hartzea** nahitaezkoa denez jarduera bat komunitarioa dela esateko, behar-beharrezkoa da honako funtsezko kontzeptu hauek behar bezala definitzea, ingurune jakin batean eskain daitezkeen osasuna sustatzeko jarduerak **kategoriatan sartzeko**.

Kategorizazio horretarako, kontuan hartu da **sektoreartekotasuna** eta **herritarren parte-hartzea** zenbaterainokoak diren osasuna sustatzeko jardueraren jatorrian, diseinuan eta gauzatzean. Hori ez ezik, inspirazio eta gidalerro gisa baliatu dira *Osasuna Sustatzeko Jarduera Komunitarioaren* definizioa (frAC izeneko proiektuan aditu-talde batek adostua, Lehen Mailako Arretaren gaineko ikerketan erabiltzeko) eta aipatutako bibliografiaren berrikuspena(23, 24).

### Osasuna sustatzeko sektore bakarreko jarduera:

Osasuna sustatzeko taldeko jarduera guztiak dira (ibilaldi osasungarriak, jardunaldiak, tailerrak, topaketak, etab.), herritarren osasuna hobetzeko eta haien bizi-kalitatea eta ongizatea areagotzeko helburuarekin egiten direnak. Askotarikoak izan daitezke, bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko, jarduera fisikoa areagotzeko, prozesu kronikoetan hezteko, osasun afektibo-sexuala sustatzeko programak, arrisku kardiobaskularreko faktoreak murrizteko, osasun mentala hobetzeko, erorikoak prebenitzeko, eta abar.

Populazio-talde jakin batzuei zuzendutako jarduerak dira, eta herritarren partaidetzarako guneak sortzeko aukera ematen dute. Osakidetzan, batik bat, talde-osasunerako heziketa-jarduerak izan ohi dira, programa korporatiboen ondorioz bideratutakoak, hala nola Paziente Bizia/Paciente Activo, Euskadi tabako-kerik gabe, Adinekoen Arreta Programa, LMAko fisioterapiako hezur-muskuluetako arazoak dituzten paziente-taldeak, Haurren Osasunerako Programa, Agindu Bizimodu Osasuntsua (ABO), etab.

### Ezaugarriak:

- Pertsonak osasun-arloan alfabetatzera bideratutako ikaskuntza-aukerak sortzen dituzte, eta horrek eragina du, herritarren ezagutza areagotzen baitu eta osasuna eta ongizatea hobetzeko trebetasun pertsonalak garatzen laguntzen baitie.

- Puntualak izan daitezke, baina, oro har, proiektu edo programa zabalago baten parte dira.
- Ordezkatzen duten kolektiboaren beharrei buruz hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukerak eta espazioak sortzen dituzte. Haien komunitateetan osasunerako aktiboak identifikatzen laguntzen diete, parte-hartzea katalizatzen eta indartzen dute eta dinamika komunitarioak sustatzen dituzte.
- Baliabide pertsonalak indartzea dute helburu, osasunaren baldintzatzaile sozialen ikuspegia aintzat hartzen duen ikaskuntza esanguratsuko ereduetan oinarritutako talde-ekintzen bidez.
- Osasun-zentroan edo osasun-zentrotik kanpo egindako OHko esperientziak biltzen dituzte, bai eta populazio-talde jakin batzuei zuzendutako osasuna sustatzeko jarduerak ere.

### **Nork sustatzen dituen:**

Osasun-sektoreak (Osakidetzak edo Osasun Publikoak) edo beste eremu edo sektore batzuek (hezkuntza, gizarte-arloa, etab.) susta ditzakete jarduera horiek, diseinatzeko eta gauzatzeko sektore arteko harremanak sortu zein ez. Osasun-eremutik, Osakidetzan, oro har, LMAko taldeetako kideek garatzen dituzte, baldin eta komunitateari edo talde txikiei zuzendutako heziketako eta osasuna sustatzeko ekintzak sustatzen badituzte beste talde batzuekin batera.

### **Herritarrek nola parte hartzen duten:**

Herritarrek hartzaile rola dute; haien parte-hartzea jarduera bera egitean gauzatzen da, xede-populazioa baitira. Herritarrak ez dira inplikatzeko jardueraren diseinuan, egikaritzean, ezta ebaluazioan ere.

## **Osasuna sustatzeko sektore arteko jarduerak:**

LMAUetako profesionalak partaide dituzten osasuna sustatzeko jarduera guztiak dira, beste eragile komunitario batzuekin lankidetzan ari badira. Jarduera hauek lan-sare multiprofesionalak eta sektore arteko aliantzak sortzen dituzte, beharra identifikatzeko fasean, programaren edo jardueraren diseinu eta definizioan, gauzatzeko fasean eta ebaluatzeko fasean ere.

Sentitutako premia edo eskaera bati ikuspegi komunitarioa duten erantzunak emateko jarduerak dira. Izan ere, premia horrek komunitateari eragiten dio (kolektiboa, sektorea, taldea, eta biztanleria, oro har), eta emaitza hobeak emango ditu sektore arteko diseinuak eta elkarlanak erantzun ematean, baita irisgarritasuna erraztu eta ekitate bermatu ere.

Horren adibide dira osasuna sustatzeko jarduerak (hitzaldiak, tailerrak, ibilaldi osasungarriak, eta abar) garatzeko lankidetzak-ekimenak; kasurako, hauen artean: LMAUak eta auzoko adinekoen zentroak, Ikasleen Guraso-Elkarteak (IGE), auzoko elkarteak eta ikastetxeak.

### Ezaugarriak:

- Puntualak edo epe laburrean egitekoak izan daitezke, baina, oro har, proiektu edo programa zabalago baten parte dira. Adibidez: Mugiment, Bihotz-biriketako Bizkorketari (BBB) buruzko tailerrak ikastetxeetan, nerabeei zuzendutako kontsultak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, erorikoak prebenitzeko tailerrak udaleko adinekoen zentroekin, etab.
- Sektore arteko jarduerak dira, osasun-premiei erantzutera bideratuak, eta komunitateko sektoreak ordezkatzeko dituzten hainbat erakunderen lan koordinatua edo integratua eskatzen dute.
- Pertsonak osasun-arloan alfabetatzera bideratutako ikaskuntza-aukerak sortzen dituzte, eta horrek eragina du herritarren ezagutzaren hobekuntzan.
- Haien komunitateetan osasunerako aktiboak identifikatzen laguntzen diete, parte-hartzea katalizatzen eta indartzen dute eta dinamika komunitarioak sustatzen dituzte.

### Nork sustatzen dituen:

Komunitate bateko edozein sektore/eragileren (administrazioak, baliabide teknikoak) arteko aliantzen bidez susta daitezke, guztien inplikazioa beharrezkoa izan gabe.

### Herritarrek nola parte hartzen duten:

Herritarrek hartzaile rola dute; haien parte-hartzea jarduera bera egitean gauzatzen da, xede-populazioa baitira. Herritarrak ez dira inplikatzeko jardueraren diseinuan, egikaritzean, ezta ebaluazioan ere.

### Ekintza komunitarioa:

Lurralde bateko harreman-dinamikak dira, herritarren parte-hartzearekin egiten direnak. Horien helburua osasuna sustatzea eta herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea da, pertsonak eta taldeek beren arazoei, eskaerei edo premiei heltzeko duten gaitasuna indartuz.

Harreman horiek, praktikara eramanda, topaketa, espazio eta ekimen bihurtzen dira, elkarbizitzako eremu edo espazio jakin bateko pertsonen arteko gizarte-harremanak dinamizatzeko, eta hiru modutara eragiten dute:

- Elkarbizitzako eremu jakin horretan bizi direnen bizi-baldintzak hobetzea
- Loturak eta gizarte-kohesioa indartzea, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak kontuan hartuta
- Osasuna eta ongizatea hobetzeko prozesuetan, ekintza indibidualerako eta kolektiborako gaitasunak sustatzea.

Osasun-zerbitzuei dagokienez, bertako profesionalen ohiko lanean ikuspegi komunitarioa txertatzea eskatzen du. Ikuspegi horretan, komunitatearen indarguneak, talentuak, trebetasunak, interesak eta esperientziak identifikatu behar dira, irtenbide positiboak bilatzeko erabilgarriak baitira.

Gure ingurunean, tokiko gobernantza-sistemetatik abiatuta garatzen dira, hala nola sektore arteko koordinazio-mahaietatik, osasun-kontseiluetatik edo -batzordeetatik, OTSetatik eta abarretatik. Komunitatean parte hartzeko proiektuekin izandako esperientzien adibideak baditugu inguruan: Bergarako Osasunerako Tokiko Sarea; Gasteizko Alde Zaharraren Sarea; Tipi-Tapa 4.0 inguratu badia; Ondo ibili, oinez ibiltzea osasuna da, Lasarte-Oriako Osasun Zentroa; Goazen Ordizia, etab.

## **Ezaugarriak:**

- Ekintza komunitario orok harremanen gainean lan egiten du. Prozesu ireki eta dialektiko bat da, komunitateko protagonisten, erakundeen, eragile komunitarioen eta herritarren arteko harremanetan oinarritua. Ekintza komunitarioak kolektibo bateko kide diren pertsonen parte-hartzea eta konpromisoa behar du, tokiko erakundeekin, profesional teknikoekin eta tokiko erakundearekin lankidetzan.
- Denboran eboluzionatzen duten prozesu dinamikoak dira.
- Komunitatearen historia eta eratutako tokiko gobernantza-sistemak hartzen ditu kontuan; hau da, dagoena oinarri hartuta garatzen da, eta komunitate bakoitzak bere ibilbidea egiten du.
- Parte hartzeko prozesuak dira, eremu profesional eta administrazio-maila desberdinen inplikazioa eta herritarren parte-hartzea bilatzen dutenak.
- Parte-hartzea dinamizatzea dute helburu, eragileak eta pertsonak aktibatuz, arazoak konpontzeko edo identifikatutako premiei konponbidea emateko antolatuta, jardun eta erabakiak har ditzaten, horretarako dauden talentuak, aukerak eta baliabideak aprobetxatuz.
- Ekitatearen ikuspegia txertatzen dute eta komunitatean dauden errealitateen aniztasuna kontuan hartzen dute.

- Etengabeko ebaluazioa sustatzen dute, emaitzetan ez ezik, ekintza komunitarioaren egituran eta garapenean ere zentratuta.

### **Nork sustatzen duen:**

Eragileen, protagonista komunitarioen eta herritarren parte-hartzea eskatzen du. Komunitate bateko edozein protagonistak bultza dezake, baina tokiko administrazioen eta protagonisten konpromisoa behar du garatzeko, iraunkorra izateko eta jarraitutasuna bermatzeko.

### **Herritarrek nola parte hartzen duten:**

Protagonista bat gehiago dira, jarduera diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen ari direnen artean.

#### **Deskribatutako funtsezko kontzeptuetatik harago, osasun-prozesu komunitarioa bera osasun komunitarioaren adierazle nagusia da:**

Prozesu komunitarioek –ekintza komunitarioko ziklo ere esaten zaie–, ingurune jakin batean jarduten duten gizarte-, osasun-, heziketa-, udal- edo elkarte-eragileek biztanleriaren osasunean eragiteko duten gaitasunari egiten diote erreferentzia. Ez dira jarduera puntualak edo denboran mugatuak; izan ere, hainbat etapatan egituratutako prozesu bat martxan jartzea eskatzen dute, garapen sozial komunitarioan inspiratutako esparru metodologiko batean oinarrituta, Marco Marchioniren eredu eta jardunbideetatik abiatuta (9).

Estrategia honetan, Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoak markatzen duen prozesuaren operatibizazio-proposamena jaso dugu. Gida hori 2016an argitaratu zen, Osasun Sailaren eta Osakidetza lankidetzaren ondorioz (25).







## Glosarioa

Glosario hau Euskadin Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoan (2016) (25) eta Acción comunitaria para ganar salud (7) jasotako glosarioetan oinarrituta sortu da.

OMEren Health Promotion Glossary of Terms 2021 (17) terminoen eta dokumentuan zehar aipatzen den bibliografiaren funtsezko erreferentziekin aberastu da.

### **AKTIBOETAN OINARRITUTAKO OSASUNAREN LANKETA KOMUNITARIOA**

Osasunaren sustapenaren arloko lan-eredua, komunitatearen indarguneen identifikazioan oinarritua, ahalduntze, gaikuntza, parte-hartze eta erantzukizuneko prozesu gisa. Osasuneko defizit-ereduaren kontrara, prozesuak osasunaren jatorria azpimarratzen du eta konponbideak bilatzen ditu pertsonen eta komunitateen osasunerako elementu positibo edo aktiboetatik abiatuta.

Komunitate bakoitzak talentu, gaitasun, interes eta esperientzia erabilgarriak ditu konponbide positiboan bilaketan erabiltzeko.

### **OSASUNERAKO AKTIBOAK**

Gizabanako, komunitate eta populazioek osasuna eta ongizatea mantentzeko daukaten ahalmena indartzen duen edozein faktore edo baliabide.

Komunitatean dauden baliabideak dira (pertsonekin, tokiekin, instituzioekin edo erakundeekin erlazionatuak), eta horiek komunitatearen edo komunitatea osatzen duten pertsonen osasuna sustatzeko eta bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko erabil daitezke.

Osasuna sortzen ez duen eta sortzen duen baliabide baten (aktiboa) arteko aldea da komunitateak azken hori aberastasun gisa, hau da, norberaren, familiaren edo komunitatearen ongizatea hobetzen duen elementu gisa adierazi eta onartzea.

## **SEKTORE ARTEKO LANKIDETZA**

Gizarteko hainbat sektoreren arteko harreman aitortua, gai bati buruzko ekintzei ekiteko ezarria osasun-emaizak edo tarteko osasun-emaizak lortzeko xedearekin, osasun-sektoreak bakarka jardunez lor dezakeena baino modu efikazagoan, eraginkorragoan edo jasangarriagoan.

## **ELKARREKIN EKOIZTEA OSASUNEAN**

Hainbat esparru profesionaletako tokiko osasun-eragileen eta herritarren artean garatutako lana: baliabideak emanaz, bakoitzak eragin ditzakeen osasun-baldintzetan eraginez, modu antolatuan eta koordinatuan eginez, eta osasun-helburu komunekin.

## **KOMUNITATEA**

Pertsonen talde espezifikoak. Pertsona horiek zona geografiko zehaztu batean bizi dira eta/edo jarduten dute, kultura, balio eta arau berdinak partekatzen dituzte eta denboran zehar garatu diren erlazio moten arabera egitura sozial batean antolatuak daude. Komunitate bateko kideek beren identitate pertsonala eta soziala eskuratzen dute komunitateak iraganean garatu dituen eta etorkizunean alda daitezkeen sinesmen, balio eta arau komunak partekatzen dituztenean.

## **DESBERDINKERIA SOZIALAK OSASUNEAN**

Osasuneko desberdinkeria bidegabeak eta saihesgarriak faktore sozial, ekonomiko, demografiko edo geografikoek zehaztutako populazio-taldeen artean. Desberdinkeria horiek osasunarekin erlazionatutako baliabideetarako pertsonak beren gizarte-maila, sexu, lurralde edo etniaren arabera dituzten sarbide-aukeren emaitzak dira; hori dela eta, osasun okerragoa izaten dute sozialki ahulagoak diren kolektiboek.

## **OSASUNAREN BALDINTZATZAILE SOZIALAK**

Pertsonak zer baldintzatan jaio, hazi, bizi, lan egin, zahartu eta elkarrekin erlazionatzen diren; azken finean, beren bizi-baldintzez eta beren osasunean eragina duten baldintzez ari gara.

## **OSASUNERAKO HEZIKETA**

Biztanleriak osasunari buruz duen ezagutza handitzeko eta osasuna sustatzen duten balio eta trebetasun pertsonalak garatzeko diseinatutako hezkuntza-jarduera.

## **OSASUNERAKO AHALDUNTZEA**

Prozesu bat, non pertsonak beren osasunari eragiten dioten erabakietan eta ekintzetan kontrol handiagoa eskuratzen duten.

Osasun indibidualerako ahalduntzea, batez ere, gizabanakoek beren bizitza pertsonalari buruzko erabakiak hartzeko eta kontrolatzeko gaitasuna da. Komunitatearen osasunerako ahalduntzea gizabanakoak era kolektiboan jardutea da, beren komunitateko osasunaren eta bizi-kalitatearen baldintzatzaileetan eragin eta kontrol handiagoa lortzeko helburuarekin; hala, ekintza komunitarioaren helburu hori garrantzitsua da osasunerako.

## **OSASUNEKO EKITATEA**

Osasuneko ekitateak esan nahi du pertsona orok izan behar duela bidezko aukera bat osasunean duen ahalmena erabat lortzeko. Modu pragmatikoagoan, esan nahi du inor ez dela egoera txarrean egon behar hori lortzeko, saihestu daitekeen neurrian. Ekitateak osasunerako aukera berberak sortzea esan nahi du, bai eta osasuneko desberdinkeriak ahalik eta maila txikienera murriztea ere.

## **SENTITUTAKO PREMIAK**

Premiak honela defini daitezke: egungo egoeraren eta egoera idealaren edo esperotako egoeraren artean dagoen tartea. Premia bat pertsona batek, talde batek edo komunitate batek senti dezake.

Komunitateak, elkarteek eta/edo herritarrek adierazitako sentipena, komunitatearen osasuna hobetzeko; betiere, norabideratzerik, esku-sartzerik eta paternalismorik gabe, informazioa jasotzen duten profesionalen aldetik. Osasunean sentitutako premien adierazpen benetakoa eta espezifikoa, osasun komunitarioko ekintzak lehenestea ahalbidetzen dutenak, biztanleriak benetan nahi dituen osasuna hobetzeko elementu espezifikoa hautematek abiatuta. Sentitutako premiak bildu ahal izateko, beharrezkoa da herritarrek sentitzen eta adierazten dutenera benetan hurbiltzea, haien premiak, nahiak, erronkak eta borondateak oinarri hartuta.

## **PARTAIDETZA KOMUNITARIOA OSASUNEAN**

Komunitate bat inplikatzeko bere beharrei erantzuten dien komunitate-prozesuak aztertzen, diseinatzen, martxan jartzen eta ebaluatzen, helburu partekatutako ezarriz eta era kooperatiboan jardunez. Komunitatea antolatzea eta kontzientzia kolektiboak izatea da. Komunitatearen parte-hartzea eta ahalduntzea oso lotuta dauden kontzeptuak dira.

## **GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA**

Gaixotasunaren agerpena murriztera eta arrisku-faktoreak murriztera ez ezik, gaixotasunaren aurrerabidea geldiaraztera eta/edo ezarri ondoren ondorioak arintzera ere bideratutako neurriak.

## **OSASUNAREN SUSTAPENA**

Osasunaren sustapenak aukera ematen die pertsoneri beren osasunaren gaineko kontrola areagotzeko, osasuna hobetze aldera. Izan ere, pertsoneri eta komunitateei haien osasuna hobetzeko eta osasunaren baldintzatzaileen gaineko kontrol handiagoa izateko beharrezkoak diren baliabideak ematean datza.

Prozesu politiko eta sozial globala da, eta zuzenean pertsonaren trebetasunak eta gaitasunak indartzera bideratutako ekintzak ez ezik, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-baldintzak aldatzera zuzendutakoak ere biltzen ditu, osasun kolektiboan eta indibidualean duten eragin negatiboa arintzeko eta positiboa sustatzeko. Beraz, osasunaren sustapena ez dagokio soilik sektore sanitarioari.

## **AKTIBOEN GOMENDIOA**

Preskripzio soziala ere esaten zaio, ingelesezko “Social prescribing” kontzeptuaren itzulpen gisa. Komunitatearen osasunarekin eta ongizatearekin lotuta, osasunerako aktiboak, baliabideak eta komunitate-jarduerak gomendatzeari egiten dio erreferentzia. Modu indibidualean egiten da, osasun-kontsultako arreta-prozesuaren barruan, eta, normalean, arlo sanitarioko profesional batek egiten du.

## **OSASUN-BALIABIDEA**

Pertsonekin edo tokiekin lotuta, haien osasuna sustatzeko edo premiei erantzuteko erabil daitekeen edozein elementu (erakundeak edo antolakundeak), bai eta komunitatearen edo hura osatzen duten pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko baliatutakoak ere.

Aktiboaren eta baliabidearen arteko aldea da herritarrek baliabide bat osasun-sortzaile gisa hauteman dezaketela edo ez, eta aktibo bat argi eta garbi identifikatzen dutela herritarrek osasunaren eta ongizatearen sortzaile gisa.

## **OSASUNERAKO TOKIKO SAREA**

Komunitatearen eragileen taldea (administrazioa, baliabide profesional eta teknikoak eta herritarrak), era ez-hierarkikoan antolatua gai edo kezka komunen inguruan, betiere komunitatearen osasunean zuzenean eragiten badute eta era aktiboan eta sistematikoan aztertzen badira, bikoiztasunak saihestuz eta baterako lana sustatuz konpromisoaren eta konfiantzaren oinarriaren gainean.

## **OSASUN KOMUNITARIOA**

Gizabanakoen eta taldeen osasunaren adierazpen kolektiboa komunitate zehaztu batean, pertsonen, familien, gizarte, kultura eta ingurumeneko ingurunearen ezaugarrien arteko interakzioak zehaztua, baita osasun-zerbitzuek eta faktore sozial, politiko eta globalen eraginak zehaztua ere.

## **SALUTOGENESIA**

Salutogenesiaren esanahia “osasunaren jatorria” da. Pertsonak zergatik gaixotzen diren eta gaixotasuna eragiten duten faktoreak zein diren galdetzen den ikuspegi patogeniko tradizionalaren aurrean, salutogenesia paradigma berri bat da, pertsonak osasuntsu mantentzeko moduan eta giza osasunean eta ongizatean inplikaturako faktoreetan oinarritzen dena. Ikuspegi horretatik abiatuta, biztanleen osasunean esku hartzeko proposamenak garatzen ditu.







## Bibliografia

1. Montaner Gomis I, El Carmel Barcelona Gonçal Foz Gil C, Isabel Pasarín Rúa M. Puntos clave\* La salud: ¿un asunto individual...? No todo es clínica. Vol. 8, AMF. 2012.
2. Wilkinson R, Marmot M, Academic Search Complete. Social Determinants of Health: the Solid Facts. World Health Organization; 2003.
3. Pasarín MI, Díez E. Community health: Action needed. Gac Sanit. 2013;27(6):477-8.
4. Cofiño R, Pasarín M a. I, Segura A. ¿Cómo abordar la dimensión colectiva de la salud de las personas? SESPAS txostena 2012. 26. lib., Gaceta Sanitaria. 2012. 88-93. or.
5. Osasun Ministerioa. Cartera de servicios comunes de atención primaria [Internet]. 2006 [2022ko azaroaren 7an aipatua. Eskuragarri hemen: <https://www.sanidad.gob.es/profesionales/prestacionesSanitarias/CarteraDeServicios/ContenidoCS/2AtencionPrimaria/AP-PrevencionPromocion.htm>
6. Osasunaren Mundu Erakundea. Osasuna Sustatzeko Ottawako Gutuna: Canadian Public Health Association. 1986;
7. Osasun Ministerioa. Acción Comunitaria para ganar [Internet]. 2021 [2022ko azaroaren 7an aipatua]. Eskuragarri hemen: [https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/Accion\\_Comunitaria\\_Ganar\\_Salud.htm](https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/Accion_Comunitaria_Ganar_Salud.htm)
8. Sobrino Armas C, Hernán García M, Cofiño R. What we mean when we talk about “community health”. SESPAS Report 2018. Vol. 32, Gaceta Sanitaria. Doyma S.L edizioak; 2018. 5-12. or.
9. Marchioni M, Morín Ramírez L. La intervención comunitaria. Formación. Comunidad [Internet]. 2016 [2022ko azaroaren 14an aipatua]; Eskuragarri hemen: [https://comunidad.semfyec.es/wp-content/uploads/Comunidad\\_-La-intervención-comunitaria.pdf](https://comunidad.semfyec.es/wp-content/uploads/Comunidad_-La-intervención-comunitaria.pdf)
10. Roux AVD. Residential Environments and Cardiovascular Risk. Vol. 80, Journal of Urban Health: Bulletin of the New York Academy of Medicine. 2003.
11. Osasun Ministerioa, GS eta I, Comisión para reducir las desigualdades sociales en salud en España. Avanzando hacia la equidad. Propuestas de políticas e intervenciones para reducir las desigualdades sociales en salud en España [Internet]. 2015 [2022ko azaroaren 7an aipatua]. Eskuragarri hemen: [https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/promocion/desigualdadSalud/docs/Propuesta\\_Politicar\\_Reducir\\_Desigualdades.pdf](https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/promocion/desigualdadSalud/docs/Propuesta_Politicar_Reducir_Desigualdades.pdf)
12. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzza. 2018ko Osasun Inkesta [Internet]. 2018 [2022ko abenduaren 2an aipatua]. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/informazioa/osasun-inkesta-2017-2018/web01-a3osagi7eu/>
13. The Pan American Health Organization Promoting Health in the Americas. Alma Ata Adierazpena [Internet]. 2012. Eskuragarri hemen: [http://www.paho.org/spanish/dd/pin/alma-ata\\_declaracion.htm](http://www.paho.org/spanish/dd/pin/alma-ata_declaracion.htm)
14. Cofiño R, Prieto M, Hernán-García M. Community or barbarism. Community orientation of primary health care at three levels. Gac Sanit. 2023ko urtarrilaren 1a; 37.

15. Hernán M, Morgan A, Mena AL. Formación en salutogénesis y activos para la salud. Granada: Osasun Publikoko Andaluziako Eskola; 2013.
16. Harden A, Brunton G, Fletcher A, Oakley A. Teenage pregnancy and social disadvantage: Systematic review integrating controlled trials and qualitative studies. Vol. 339, BMJ (Online). 2009. 1182-5. or.
17. Osasunaren Mundu Erakundea. Health Promotion Glossary of Terms 2021. 2021.
18. Metodología en Educación para la Salud Individual y grupal [Internet]. [2022ko azaroaren 9an aipatua]. Eskuragarri hemen: <https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/0BADA52B-F565-452C-A61F-256C6078766E/193904/MetodologiaEducacionindygrupal.pdf>
19. Sobrino Armas C, Hernán García M, Cofiño R. What we mean when we talk about “community health”. SESPAS Report 2018. Vol. 32, Gaceta Sanitaria. Doyma SL edizioak; 2018. 5-12. or.
20. Ministerio de sanidad, Grupo de trabajo de salud comunitaria. Recomendaciones para el diseño de estrategias de salud comunitaria en Atención Primaria a nivel autonómico. Plan de Acción de Atención Primaria 2022-2023 [Internet]. 2022 [2022ko azaroaren 2an aipatua]. Eskuragarri hemen: [https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/recomendaciones\\_estrategia\\_salud\\_comunitaria.pdf](https://www.sanidad.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/recomendaciones_estrategia_salud_comunitaria.pdf)
21. Cabellos Sánchez A, María Campos Lizcano A, Aguado Jodar Epidemióloga A, Liste Salvador V. ¿Sabemos qué es la salud comunitaria? DO WE KNOW WHAT COMMUNITY HEALTH IS? [Internet]. 2016 [2022ko abenduaren 16an aipatua]. Eskuragarri hemen: <https://comunidad.semfyces/wp-content/uploads/Sabemos-qué-es-la-salud-comunitaria.pdf>
22. Gutierrez Jordá M, Azpeitia Serón ME, Vergara Mitxelorena I. Actuar con la comunidad... ¿Una asignatura pendiente en Osakidetza? Comunidad. 2004; 7:63-7.
23. March S, Jordán Martín M, Montaner Gomis I, Benedé Azagra CB, Elizalde Soto L, Ramos M. ¿Qué hacemos en el barrio? Descripción de las actividades comunitarias de promoción de la salud en atención primaria: frAC proiektua. Gac Sanit. 2014;28(4):267-73.
24. March S, Ripoll J, Ruiz-Giménez JL, Montaner Gomis I, Benedé Azagra CB, Elizalde Soto L, et al. Observational study on factors related to health-promoting community activity development in primary care (frAC Project): A study protocol. BMJ Open. 2012;2(3).
25. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Osakidetza. Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. Talde sustatzailea: Komunitateko Osasunerako Tokiko Sarea [Internet]. 2016. Eskuragarri hemen: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>
26. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, Bilboko Udalaren Kultura arteko komunitateko esku-hartze programa, Gazteleku Garapen Komunitarioko Elkartea, La Caixa Fundazioa. Ongizatea eta osasuna sortzen duen partaidetzarako gida. iLab Partaidetza Komunitarioa eta Osasuna [Internet]. 2020ko uzt. [2023ko urtarrilaren 20an aipatua]. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/parte-hartze-komunitarioa-eta-osasuna/web01-a2osakom/eu/>
27. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa. Marco Estratégico para la Atención Primaria y Comunitaria. 2019.
28. Ministerio de Sanidad. Plan de Acción de Atención Primaria y Comunitaria 2022-2023. Marco Estratégico de Atención Primaria y Comunitaria [Internet]. 2022 [2022ko azaroaren 15ean aipatua]. Eskuragarri hemen: [https://www.sanidad.gob.es/profesionales/excelencia/docs/Plan\\_de\\_Accion\\_de\\_Atencion\\_Primeria.pdf](https://www.sanidad.gob.es/profesionales/excelencia/docs/Plan_de_Accion_de_Atencion_Primeria.pdf)

## Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia. Lehen Mailako Arreta

29. Osasun Ministerioa. Osasun Sistema Nazionala. ESTRATEGIA DE SALUD DIGITAL [Internet]. 2021 [2022ko abenduaren 10ean aipatua]. Eskuragarri hemen: [https://www.sanidad.gob.es/ciudadanos/pdf/Estrategia\\_de\\_Salud\\_Digital\\_del\\_SNS.pdf](https://www.sanidad.gob.es/ciudadanos/pdf/Estrategia_de_Salud_Digital_del_SNS.pdf)
30. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza. Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia. 2010.
31. Osakidetza, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, O+Berri Berrikuntza Sanitarioko Euskal Institutua. Euskadiko Arreta Integratuko Plana [Internet]. [2023ko urtarrilaren 10ean aipatua]. Hemen eskuragarri: [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen\\_gob\\_planes/eu\\_dhttps://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen\\_gob\\_planes/eu\\_def/adjuntos/Plan\\_de\\_atencion\\_integrada\\_en\\_Euskadi.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_dhttps://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_def/adjuntos/Plan_de_atencion_integrada_en_Euskadi.pdf)
32. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza. Marko Estrategikoa 2021-2024 Osasun Saila. [2022ko abenduaren 10ean aipatua]; Hemen eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco\\_estrategico\\_2021\\_2024/eu\\_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf)
33. Eusko Jaurlaritza. Osasuna, Pertsonen Eskubidea, Guztion Ardura. Euskadirako Osasun Politikak 2013-2020 [Internet]. 2013. Hemen eskuragarri: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)
34. Osakidetza. 2023-2025eko Plan Estrategikoa. 2023 [2023ko apirilaren 18an aipatua]; Hemen eskuragarri: [https://www.osakidetza.eus/sites/Intranet/es/referencia-documental/Documentos%20compartidos/Comunicacion/Planes/plan\\_estrat\\_osaki\\_187x280\\_web\\_eu.pdf](https://www.osakidetza.eus/sites/Intranet/es/referencia-documental/Documentos%20compartidos/Comunicacion/Planes/plan_estrat_osaki_187x280_web_eu.pdf)
35. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza. Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategia. 2019 [2022ko abenduaren 17an aipatua]; Hemen eskuragarri: [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_departamento/eu\\_def/adjuntos/lehen-mailako-arreta-euskadin.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/eu_def/adjuntos/lehen-mailako-arreta-euskadin.pdf)
36. Organization of Nurse Executives A. COMMUNICATION KNOWLEDGE LEADERSHIP PROFESSIONALISM BUSINESS SKILLS Nurse Executive Competencies: Population Health [Internet]. 2015. Hemen eskuragarri: [www.aonl.org](http://www.aonl.org).
37. Smith K, El Bazini-Barakat NE. A Public Health Nursing Practice Model: Melding Public Health Principles with the Nursing Process. 2003.
38. 157. zk. SAS/1729/2010 Agindua, ekainaren 17koa, Familia eta Komunitateko Erizaintza espezialitateko prestakuntza-programa onartu eta argitaratzen duena. 2010eko eka.
39. 100/2018 Dekretua, uztailaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzkoa. 2018;
40. Casetti V, López-Ruiz V, Predes-Carbonell JJ, Grupo de trabajo del Proyecto AdaptA GPS. PARTICIPACIÓN COMUNITARIA: Mejorando la salud y el bienestar y reduciendo desigualdades en salud. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioa, Osasun Zientzien Aragoiko Institutua, argitaratzaileak. 2018.
41. Aragoiko Arreta Komunitarioko Estrategia [Internet]. Aragoiko Arreta Komunitarioko Estrategia. Web Blog Estrategia de Atención Comunitario Aragón. 2019 [2022ko abenduaren 15ean aipatua]. Hemen eskuragarri: <https://atencioncomunitaria.aragon.es>
42. SemFYC, Madrilgo Erkidegoko Osasun Publikoaren Institutua. ¿Cómo iniciar un proceso de intervención y participación comunitaria desde el centro de salud? De la reflexión a las primeras intervenciones. SemFYC. 2003.
43. Asturiasko Osasun Behatokia. Guía para Trabajar en Salud Comunitaria en Asturias [Internet]. 2016 [2022ko abenduaren 15ean aipatua]. Hemen eskuragarri: [https://obsaludasturias.com/obsa/wp-content/uploads/Guia\\_salud\\_comunitaria\\_2016.pdf](https://obsaludasturias.com/obsa/wp-content/uploads/Guia_salud_comunitaria_2016.pdf)

44. Osasun Saila. Tabako-kerik gabeko Euskadi [Internet]. [2023ko urtarrilaren 15ean aipatua]. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/euskadi-libre-de-humo/#:-:text=Euskadi%20Libre%20de%20Humo%20es,del%20tabaco%20y%20productos%20derivados>
45. Osasun Saila. Adingabeak eta Alkohola Programa [Internet]. [2023ko urtarrilaren 15ean aipatua]. Eskuragarri hemen: <https://www.euskadi.eus/informacion/programa-menores-y-alcohol/web01-a3alcoho/es/#:-:text=El%20programa%20%20Menores%20y%20Alcohol, de%20edad%20y%20grupos%20sociales>
46. Swider SM, Krothe J, Reyes D, Cravetz M. The Quad Council Practice Competencies for Public Health Nursing. *Public Health Nurs.* 2013ko azaroa; 30(6):519-36.





# Eranskinak

## I. ERANSKINA

Eae-n osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeari buruzko testuinguruaren egungo egoeraren azterketa, Osakidetzaren Erakunde Sanitarioei egindako kontsultaren emaitzak. Inkestagune. 2022

Osakidetzaren zerbitzu-erakundearen egungo egoera ezagutzeko, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeari dagokionez, eta SARS. CoV2ren pandemia-aldiak jarduera horien mantentzean izan duen eragina ezagutzeko, Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordeak web-inprimaki bat egin eta bidali zuen Inkestagune tresnaren bidez.

Inprimakia 2022-07-13an bidali zen. Hasiera batean, hilabeteko epea eman zitzaien zerbitzu-erakundeetan izendatutako pertsonari bete zezaten. Zuzendaritzetan bertan betetzea proposatu zen, zerbitzu-erakundeetako arreta komunitarioko Erreferentearekin batera, erakunde bakoitzean halakorik izatekotan, eta 2022-09-11n jaso ziren erantzun guztiak.

Inkestako informazio guztia koordinazio teknikoko taldeak eta idazketa-taldeak bildu eta aztertu zuten, eta lortutako emaitzen artean, honako hauek nabarmen ditzakegu:

## Osakidetzako zerbitzu-erakundearen Inkestaguneko erregistroari buruzko txostena

### 1. Erregistroa Inkestagunen:

Osakidetzako Erakunde Sanitarioen % 100ek egin zuten “Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzea”ri buruzko erregistroa Inkestagunen.

Esku-hartze komunitarioei buruzko Excelaren bidalketa:

Zerbitzu-erakunde bakoitzean garatutako esku-hartze komunitarioak erregistratzeko Excel dokumentuari dagokionez, erakundearen % 72,7k bete zuten agiria, % 4,5ek partzialki bete zuten, eta % 22,7k ez zuten bete.

**2. Ba al dago zure zerbitzu-erakundean erreferentziazko pertsonarik osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko?**

Zerbitzu-erakundeen % 63,6tan erreferentziazko pertsona bat dago osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko, beraz, erakundeen % 36,4k ez du figura hori.

**3. Ba al dago estrategia edo planik osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko plangintza eta hedapena barne hartzen duenik zure zerbitzu-erakundean?**

Erakundeen % 27,7k badu osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia edo plan bat, eta % 72,3k ez. % 27,7 horretatik, % 66k bidali zuten beren estrategia edo plana esandako posta-helbideetako batera.

**4. Zure zerbitzu-erakundean ba al dago osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko batzorderik edo lantalderik?**

Erakundeen % 72,7k batzordeak eta/edo lantaldeak ditu osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko, eta % 27,3k, berriz, ez.

**5. Zure zerbitzu-erakundeak ba al du baliabiderik osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko? Baietz erantzunez gero, adierazi zer baliabide erabiltzen diren zure zerbitzu-erakundean zeregin horretarako: Giza baliabideak, ekonomikoak, azpiegitura, eta abar.**

Zerbitzu-erakundeen % 68,2k osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko giza baliabideak ditu, eta % 40,1ek adierazi du horretarako azpiegiturak badituela. Aldiz, soilik % 9k adierazi du zerbitzu-erakundean baliabide ekonomikoak dituztela ikuspegi komunitarioa lantzeko. Bestalde, zerbitzu-erakundeen % 13,6k beste baliabide batzuk dituztela aipatu dute, hala nola material sanitarioa eta Bottom-up bezalako tresnak.

**6. Zure zerbitzu-erakundean ezartzen al dira denbora-tarteak osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko?**

Erakundeen % 59k denbora-tarteak ezartzen dituzte agendetan osasun komunitarioa lantzeko, bilerak egiteko, talde-saioak egiteko (gerora historia klinikoan banaka erregistratu behar dira), zentroetatik kanpora irteteko... Galdera horretan baiezkoa eman duten erakundeek agendetan jarduera horiek

identifikatzeko ekintzak dituztela aipatu dute, edo badutela aukera denborak erreserbatzeko agendetan. Hala ere, agenda-patroietan, jarduera horiei dedikatzeko denborak ez daude itxita; alderantziz, erakunde guztietan baieztatu dute denbora horiek planifikatu ahala ixten dituztela.

**7. Osasuna ikuspegi komunitariotik lantze horretan, komunitatearen zein beste eragilek (elkarteak, udalak, hezkuntza, herritarrak edo beste batzuk) parte hartzen dute?**

Erakundeen % 90ek dio komunitatearen beste eragile batzuekin parte hartzen duela jardueraren batean. Galdetutako 2 erakundek soilik erantzun dute ez dutela inolako jardueratan parte hartzen komunitateko beste eragile batzuekin lankidetzan.

ESIen % 92k partaidetza aktiboa dute tokiko inguruneetan finkatutako osasunerako tokiko sareetan.

Tokiko inguruneetan orientabide komunitarioarekin edo ekintza komunitarioarekin jardueraren bat garatzeko aliantzak ezarri diren eragile edo erakunde motari dagokionez, erakundeen % 90ek adierazi dute egiten dituztela, honako hauekin: % 68 elkarteekin, % 81 udalekin, % 68 ikastetxeekin, % 50 herritarrekin, eta % 59 parrokiekin, fundazioekin, merkatariekin, Ertzaintzarekin eta beste batzuekin.

**8. Zure zerbitzu-erakundearen erabili al da "Osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa"?**

Inkesta egin duten erakundeen % 45ek dio erabiltzen dutela osasuna ikuspegi komunitario batetik lantzeko gida metodologikoa. Gainerako % 55ak, aldiz, ez du ezagutzen edo ez du erabiltzen.

**9. Egin al da diagnostiko komunitariotik zure zerbitzu-erakundearen?**

Galdetu zaien erakundeen % 27k soilik egin du diagnostiko komunitarioaren bat, eta gainerako % 73ak aitortu du ez duela antzeko datuak biltzeko, lantzeko eta aztertzeko prozesurik egin, komunitateen errealitatea edo komunitate horien zati batena hobeto ezagutzeko, gerora esku-hartzeak bideratzeko xedearekin.

## **10. Osasunerako aktiboen mapaketarik egin al da zure zerbitzu-erakundeetan?**

Inkestatutako erakundeen % 45ek aitortu du egina duela osasunerako aktiboen mapaketaren bat. Gainerako % 55ak ez du aktiboen mapaketarik egin..

## **11. Zure zerbitzu-erakundeak parte hartzen al du osasunerako tokiko sareren batean?**

Erakundeen % 68k dio aktiboki parte hartzen duela osasunerako tokiko sareren batean, eta % 32k, berriz, ez duela parte hartzen. ESIen % 92k baiezkoa ematen dio gai honi. Gainera, osasunerako tokiko sareren batean parte hartzen duten erakundeetan, partaidetza hori ez da modu isolatuan gertatzen, baizik eta beste herri batzuekin batera.

## **12. Osasuna ikuspegi komunitariorik lantze horretan, zenbateraino aritzen dira lurraldeko Osasun Publikoko teknikariek elkarlanean?**

Zerbitzu-erakundeen % 72k adierazten dute nolabaiteko lankidetzak badutela beren lurraldeko Osasun Publikoko teknikariek. Erantzuna aztertzean, bereiz hartzen baditugu ESIak eta gainerako zerbitzu-erakundeak, ESIen % 92k beren lurraldeko Osasun Publikoko teknikariek lan egiten dute (gainerako zerbitzu-erakundeetatik, soilik % 33k: Santa Marina Ospitalea, Gorlizko Ospitalea, Osatek...). Lankidetzak horien erdiak puntualak izan dira, proiektu zehatzen testuinguruan edo osasunerako tokiko sareren batean parte hartuz egin baitira; beste erdiak, berriz, lankidetzak harreman finkatuz hartzen dira. Erakundeen % 28 ez da aritzen beren lurraldeko Osasun Publikoko teknikariek elkarlanean.

## **13. Zure zerbitzu-erakundeetan, zer eragin izan du COVID-19aren pandemia-aldiak (2020ko lehen hiruhilekotik gaur egunera arte), osasuna ikuspegi komunitariorik lantzeari dagokionez?**

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, zerbitzu-erakundeen % 45ek adierazi du osasuna ikuspegi komunitariorik lantzeko jardueren zati bat bertan behera gelditu dela (kontsultatutako ESIen % 84k adierazi du zati bat gelditu dela bertan behera, eta % 15ek, den-denak). Erakunde horietako gehienek adierazi dute ari direla berraktibatzen jarduera horiek apurka-apurka, 2021eko bigarren seihilekoan. Bestalde, % 22k aitortu du jarduerak erabat gelditu direla haienean. Beste

erakunde batek, berriz, aldi horretan horrelako jarduerari bultzada nabarmena eman dietela adierazi du, eta beste batek aipatu du gai izan direla jarduera mantentzeko, logistika-kontuak garaiko eskakizunetara egokituz.

Inkestatutako zerbitzu-erakundeen % 18k adierazi dute ez dutela ezer aldatu beren jarduera komunitarioari dagokionez, aldez aurretik ere ez zutelako horrelako esku-hartzerik egiten beren erakundeetan.

#### **14. Egiten al da ebaluaziorik zure zerbitzu-erakundeetan, osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeari dagokionez? Erantzuna baiezkoa bada, azaldu labur-labur testu-koadroan.**

Erakundeen % 36k egiten du ebaluazioa osasunaren ikuspegi komunitarioaren lanketari dagokionez, eta erakundeen % 64ak ez du jarduera horren gaineko ebaluaziorik egiten.

Jarduera ebaluatzen duen % 36 horretatik, horren deskribapena egin duten erakundeek adierazi dute jardueraren memoriak, inkestak eta diagnostikoak egin izan dituztela. Ezein erakundek ez du adierazi osasun-emitzen araberako ebaluaziorik egin duenik, jarduera mota horren eraginari dagokionez, baina erakunde batek bai eman du ebaluazio kualitatiboko eta kuantitatiboko esperientzien berri (nahiz eta puntualak izan), familiako eta komunitateko espezialista bilakatuko direnen egoitzaldi amaierako lanei esker.

#### **15. Adierazi zure zerbitzu-erakundeetan osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko jarduera hauetakoren bat egiten ote den.**

Galdetu zaien zerbitzu-erakundeen % 9k soilik erantzun du ez duela proposatutakoen arteko jarduerarik egiten osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko. Egiten dituztela dioten zerbitzu-erakundeen % 91tik, % 14 profesionalei zuzendutako sentsibilizazio-jarduerak izan dira, % 16 profesionalei zuzendutako prestakuntza-jarduerak, % 15 herritarrak sentsibilizatzeko jarduerak, eta % 11 ikerketaren arlokoak.

## Erakunde Sanitarioen zerrenda

DEBAGOIENENKO ESI-A

---

ARABAKO ESI-A

---

ARABAKO ERRIOXAKO ESI-A

---

BARAKALDO-SESTAOKO ESI-A

---

BARRUALDE-GALDAKAOKO ESI-A

---

BIDASOKO ESI-A

---

BILBO-BASURTUKO ESI-A

---

DEBABARRENEKO ESI-A

---

DONOSTIALDEKO ESI-A

---

EZKERRALDE-ENKARTERRI-GURUTZETAKO ESI-A

---

GOIERRI-UROLA GARAIKO ESI-A

---

TOLOSALDEKO ESI-A

---

URIBEKO ESI-A

---

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREA (OMS)

---

BIZKAIKO OMS-A

---

GIPUZKOAKO OMS-A

---

EMERGENTZIAK

---

OSATEK

---

TRANSFUSIO ETA GIZA EHUNEN EUSKAL ZENTROA

---

SANTA MARINA OSPITALEA

---

GORLIZKO OSPITALEA

---

GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

---

## II. ERANSKINA

### EK-ren rolari lotutako gaitasunen deskribapena

Erizain Komunitarioek erizaintzako, osasun publikoko eta gizarte-zientzietako jakintza biltzen dute, eta komunitateak zaintzean jartzen dute fokua, osasuna sustatuz eta gaixotasuna prebenituz, oinarri hartuta ezin dugula pertsonen osasun indibidualaren zainketa jasangarria egin ez baditugu aldi berean haien herriko biztanle guztiak zaintzen.

Komunitateko Erizaintzan, batu egiten dira osasunaren lehen mailako arretaren ezagutza (osasunaren baldintzatzaileak barne), erizaintzako zientzia eta gizarte-zientziak, populazioen osasuna sustatzeko, babesteko eta mantentzeko helburuarekin (36-38, 46).

Erizain Komunitarioak, beraz, herritarrei arreta ematera bideratutako erizaintzaren berezko gaitasunak aplikatuko ditu, herritar horien osasuna indartzeko. Horretarako, berariazko trebakuntza behar da, ezagutzak areagotzean eta trebetasun jakin batzuk garatzean oinarritzen dena (36, 46). Eskatutako ezagutzak eta trebetasunak bost taldetan egituratzen dira:

#### 1. Ingurunearen ezagutzaren arloko ezagutzak eta trebetasunak

- Biztanleriaren osasunaren eta banakako arreta-ereduaren arteko desberdinkeriak eta elkarreraginak ezagutzea
- Biztanleria-mailan osasunerako arriskuak sailkatzean, erizaintzaren, osasun publikoaren eta zientziaren/sistemen teoriaren sintesi bat erabiltzea
- Ebaluazio komunitarioaren osagaiak ulertzea, interpretatzea eta esku-hartzeetan integratzea, bai eta informazio epidemiologikoa, osasunaren baldintzatzaile sozialak, ingurumen-eraginak, elkarre-mugimenduak, osasun-arloko alfabetatzea eta partaidetza komunitarioa ere
- Biztanleriaren osasunaren kudeaketan ohikoak diren eragin demografikoak identifikatzea
- Artatutako biztanleriaren osasunari aplikatzen zaizkion joera sozial eta teknologikoen, arazozen eta garapen berrien ezagutza erakustea
- Taldeekin, komunitateekin, populazioekin, osasun-arloko profesionalekin eta

interesdun izan daitezkeen beste alderdi batzuekin koordinatzea, bildutako datuak berrikusteko eta ebaluatzeko

- Artatutako komunitateari dagokionez, diziplina anitzeko taldean proiektatzea osasun-arretako premien lehenespena eta lanketa
- Informazio klinikoko sistema elektronikoak erabiltzea datuak bildu, administratu eta integratzeko eta datu horiek interpretatzeko, praktika klinikoa hobetzeko eta artatutako biztanleriaren osasun-eraketak hobetzeko
- Eskura dauden baliabide komunitarioak identifikatzea, eta haien eta osasun-erakundearen arteko loturak eraikitzeko lan egitea

## 2. Harremanen arloko ezagutzak eta trebetasunak

- Pentsamendu sistemikoa aplikatzea komunitateei arreta emateko
- Konfiantzazko harremanak sortzea pertsonen osasuna lantzen duten eragile guztiekin, lankidetzaz-esparru bat ezarriz praktika-eremu guztietan eta arreta jarraituan zehar
- Prozesuak garatzea, osasun-arretaren prestazioan kultura-dimentsioa txertatuz
- Aniztasuna (eta pentsamendu dibergentea) sustatzea, mekanismo baliagarria izan dadin ideia berritzaileak trukatzeko eta arazoak konpontzeko, komunitatearen osasunaren kudeaketan
- Osasun-gaien inguruko informazioa emanaz, pertsonak heztea eta ahalduntzea
- Pazienteen eta komunitateen ordezkaritza sustatzea, beren osasunari heltzeko erari buruzko erabakiak har ditzaten
- Biztanleria-mailan osasunarekin lotutako esku-hartzeak egiteko beharrezkoak diren trebetasun/gaitasun klinikoak eta lidergoari buruzkoak identifikatzea talde asistentzialetan
- Lanbideen arteko lankidetzaz-praktika eta koordinazioa sustatzea
- Jarrera irekia izatea eta komunitateari arreta emateko modu berritzaileak eta sortzaileak sustatzea
- Bide ematea gai edo kezka etikoak planteatzeari, diziplina orotan eta arreta-ingurune guztietan, pazienteak eta haien familiak barne
- Gizabanakoekin, familiekin eta taldeekin modu eraginkorrean komunikatzea, diziplina anitzeko talde bateko kide gisa

### 3. Profesionalismoaren arloko ezagutzak eta trebetasunak

- Komunitatearen eta sistemen ikuspegia sustatzea eta horren alde egitea
- Komunitatearen erantzukizuna sustatzea bere osasun-helburuak lortzean duen ardurari dagokionez, eta aldaketarako eragile izatea arreta birdiseinatzeko lanean, osasun komunitarioa indartuz
- Biztanleriaren osasunaren kudeaketarekin eta arreta-prozesuan zeharreko koordinazio asistentzialarekin lotutako jardueretan parte hartzea
- Ikerketan oinarritutako ebidentzia interpretatzea eta kritikoki aztertzea, eta aplikatzea ere, osasun komunitarioko ekimenetan erabiltzeko eta osasun komunitarioaren kudeaketa ebaluatzeko
- Esku-hartze komunitarioak eta hezkuntzakoak nahiz kalitatezko komunikazio-materialak sortzea, komunitatearentzat garrantzitsuak diren osasun-arazoei modu egokian heltzeko, aniztasuna kontuan hartuz, helburu izanik pertsonak, komunitateak eta erakundeak arazo horien kudeaketan inplikatzea
- Prebentzio-maila guztiak kontuan hartzea; batez ere, lehen mailako prebentzioa
- Praktikaren emaitzak ebaluatzea programa integral eta jarraitu baten testuinguruan
- Gainbegiratzea garatutako programen eraginkortasunaren, kalitatearen, irisgarritasunaren eta iraunkortasunaren ebaluazioa
- Modu eraginkorrean komunikatzea populazio-osasunaren metriken erabilera berritzailean oinarritutako praktika kliniko eta kudeaketa-praktika onenak
- Ikasteko aukerak identifikatuta, etengabeko ikaskuntzan aritzea gai hauen inguruan: osasunaren sustapena, gaixotasunen prebentzioa, gaixotze-prozesuak, gaixotasun kronikoen maneia, farmazia-produktuak, teknologia klinikoa eta partaidetza komunitarioa

### 4. Kudeaketa, irakaskuntza eta ikerketa arloko ezagutzak eta trebetasunak

- Biztanleriaren osasuna lantzeko programen alde egiten duten kudeaketa-ereduak artikulatzea
- Herritarren osasunerako protokoloak, politikak eta prozedurak garatzen laguntzea

- Komunitatearen osasun-baliabideak osasun-erakundearen helburu estrategikoetan eta kudeaketa-lehentasunetan txertatzen laguntzea
- Populazioari buruzko datuak sartzera, osasun-premia propioak dituzten komunitateetako taldeak identifikatzeko, eta pazienteak, familiak eta gizarte-eragileak inplikatzera esku-hartzeen definizioan eta ezartzen eta emaitzen ebaluazioan.
- Egungo ingurunea ebaluatzea eta espero diren emaitzak lortzera bidean aurrera egiteko adierazleak ezartzea, komunitatearen osasuna zaintzen diharduten eragile guztiekin lankidetzan.
- Talde asistentzialei prestakuntza ematea, populazio-mailan arreta emateko erabakiek kostu-eraginkortasunean izan ditzaketen inplikazioei buruz.
- Erakunde osoan konpromisoa sustatzea, populazio-premiei erantzuteko jarraitutasun asistentzian.
- Biztanleriaren osasun-behar konplexuak identifikatzea eta integratzea, pertsonak eta komunitateak sartuz ekimenen diagnostikoan, garapenean, ezarpenean eta ebaluazioan.
- Osasun komunitarioan aplikatu daitezkeen lege eta erregelamenduak interpretatzea.
- Erakunde arteko ahaleginak zuzentzea herritarren osasuna hobetzeko, lankidetzak sortuz eta beste erakunde eta diziplina batzuen lana integratuz.
- Komunitateari arreta emateko prozesuaren barruan ikerketa aplikatzea eta erizaintzako ikerketaren garapenean laguntzea, gerora erizaintza arloan komunitateetan eginiko ikerketaren emaitzak praktikan txertatzeko

## 5. Lidergo-arloko ezagutzak eta trebetasunak

- Erizaintzaren lidergoa sustatzea ezagutzaren, ebidentziaren aplikazioaren eta erabakiak hartzeko estrategia egokien bidez, erakundearen barruko zein kanpoko hainbat egoeratarako
- Erizaintzaren praktika sustatzea, komunitatearen eremuan dituen ezagutza eta eskumen guztietan
- Aholku kontseiluetan, batzordeetan, komiteetan eta dena delako mahaietan, osasunaren zaintzaren lider izatea, ikuspegi komunitariotik
- Arreta-eremuetan helburuak zuzenago lerrokatzera bideratutako lankidetzak eta elkartzeko ekimenak gidatzea, emaitzak eta pazientearen esperientzia hobetzeko

## Osasuna ikuspegi komunitariotik lantzeko estrategia. Lehen Mailako Arreta

- Arlo horretan aditu, figura eredugarri eta aholkulari gisa jardutea biztanleriaren osasun-barrutian
- Diziiplina anitzeko taldeekin lankidetzan aritzea eta haiek inspiratzea, arreta holistikoa eman dezaten, ikuspegi komunitarioa aintzat hartuz
- Aldaketa-eragile izatea, eta besteei laguntzea ulertzen biztanleriaren osasuna prozesu osoan kudeatzeak duen garrantzia, premia eta inpaktua, bai eta paradigma-aldaketaren prozesua bera ere
- Biztanleriaren osasuna sustatzea, ezaugarri esanguratsua den heinean
- Biztanleriaren osasun-arretari dagokion legegintza-prozesuan eragitea

### III. ERANSKINA

Ikerketa deskriptiboa, osasuna sustatzeko eskainitako jardueren artean LMAk zeinetan parte hartzen duen jakiteko eta LMAUetako profesionalak toki-eremuko prozesu komunitarioetan duten parte-hartzea ezagutzeko

**Eskema honetan, ikertutako jarduerak eta esku-hartzeak sailkatzeko irizpideak jaso dira, orientazio modura.**

- **Nork sustatu duen:** LMAUak/beste eremu asistentzial batek (Osasun Mentaleko Sarea, ospitale-zerbitzua), edo LMAUtik kanpoko agente batek (adierazi zeinek: hezkuntza, udala, aldundia, etab.)
- **Jardueraren sailkapena sektore arteko edo komunitateko parte-hartze irizpideen arabera:** osasuna sustatzeko sektore bakarreko/sektore arteko jarduerak, ekintza komunitarioa
- **Helburua:** informatzea/hezte/prebenitzea/parte hartzea/antolatzea/beste batzuk
- **Ekimenaren formatua:** tailerra/hitzaldia/bilera/ikastaroa/jardunaldia/hitzaldia
- **Parte hartu duten LMAUko profesionalak:** kopurua eta lanbide-kategoria
- **Iraupena:** orduak, asteko egunak, maiztasuna, etab.
- **Zein herritarrentzat den:** biztanleria, oro har/haurrak/gazteak/helduak, 65 urtetik gorakoak/emakumeak/beste batzuk
- **Landutako faktore motak:** osasun-arazoak (gaixotasun kronikoak, desgaitasunak, pazienteen eskubideak eta betebeharrak) / osasun-baldintzatzaileak (ongizate emozionala, elikadura, jarduera fisikoa, tabakoa, alkohola eta beste droga batzuk, substantziarik gabeko adikzioak, bizikidetza eta tratu ona...) / bizi-trantsizioak (haurtzaroa, nerabezaroa, zaintzaile diren pertsonak zaintzea, zahartzea, migrazioa), etxebizitzaren kalitatea eta bizigarritasuna, ingurune osasungarriak, eta abar.
- **Xede-populazioaren kide-tza-eremua:** hezkuntza/gizarte-arloa/soziosanitarioa/elkarte-sarea/beste batzuk
- **Herritarren parte-hartzea plangintzan:** bai/ez
- **Idatzizko plangintza dago:** bai/ez
- **Jardueraren ebaluazioa dago:** bai/ez
- **Jarduera/esku-hartzea planifikatzen eta gauzatzen duten profesionalen profila:** aditua, laguntzailea, prestatzailea

## IV. ERANSKINA

### Informazio-iturriak. Biztanleriaren osasun-profilari buruzko txostenak. Osasun komunitarioaren analisi kuantitatiboa

#### 1. Euskadiko Tokiko osasun-profilak 2020

Euskadiko Osasun Behatokiak (Osasun Saila) sortu zituen, eta Euskadiko oinarrizko osasun-eremu guztien osasun-profilari buruzko berehalako informazio osoa eta eguneratua ematen dute. Tokiko osasun-profil horiek honako hauei buruzko informazioa ematen dute:

- **Biztanleria:** eremuko profil soziodemografikoa eta ingurumenekoa
- **Gabezia sozioekonomikoa eta ingurumenekoa**
- **Generoaren arabera bereizitako osasun-profila:** gaiaren araberrako adierazleak ematen dira.
  - **Bizi-itzaropena eta heriotza-tasa** (bizi-itzaropena, tumore gaiztoak, zirkulazio-sistemako gaixotasuna, arnas sistemako gaixotasunak)
  - **Osasun-egoera** (gaixotasun kardiobaskularren prebalentzia, antsietate eta antidepresiboen kontsumoa, morbiditatea, arrisku handikotzat sailkatutako pazienteak)
  - **Haurrak** (6 hilabete arteko amagandiko edoskitzea, gehiegizko pisua 10 urtetik beherakoetan)
  - **Osasun-baldintzatzaileak** (fisikoki aktiboak diren gizonak/emakumeak, tabakismoa)
  - **Biztanleria** (zahartzea eta ugalkortasun-tasa)
  - **Osasun-sistema** (LMAko medikuntzako kontsulta kop., LMAko erizaintzako bisita kop., espezializatuko bisita kop., ospitalizazioen bisita kop.)

#### 2. Euskadiko populazioaren osasunaren atlas / OSAGIN

Populazioari buruzko datuak, osasun-joerak eta horien baldintzatzaileak eskura izatea ahalbidetzen duen tresna da, arreta orientatzeko eta zerbitzua ematen zaien populazioak ezagutzeko. Mapa interaktibo batzuk ditu, sexuaren araberrako adierazle sozioekonomikoak, hilkortasun-datuen banaketa, bizi-itzaropena eta eremu geografikoetako eta oinarrizko osasun-eremuetako heriotza-kausa nagusiak erakusten dituztenak.

### **3. Beste informazio-iturri batzuk**

Besteak beste, Eustat (Euskal Estatistika Erakundea), osasun-inkestak, UDALMAP eta Tokiko Agendak 21. Iturri horiek komunitateen historia demografikoa (migrazio-mugimendu berriak, balioak, ohiturak, hizkuntzak...) eta/edo tokiko asoziazionismoaren duela gutxiko historia ezagutzeko aukera ematen dute.

### **4. Oracle Business Intelligence Enterprise Edition (OBIEE)/Oracle Analytics Server (OAS), Osakidetzaren historia klinikoko erregistro-sistemetatik informazioa lortzea. Osabide Global, OSANAIA, Osabide AP**

Aginte-koadroen eta OBIEE/OASeko datuak erauzteko txostenen bidez, LMAko datuak eskuratuko dira historia klinikoaren erregistroko informazio-sistemetatik, artatutako populazioen zerbitzu sanitarioen maiztasunari eta erabilerari dagokionez, bai eta kontsulten arrazoiari, gaixotasunen prebalentziari, erizaintzako diagnostikoei eta abarri buruz ere.

## V. ERANSKINA

### LMAUko koaderno komunitarioaren definizioa

Koaderno Komunitarioa zentroaren berrorientazio komunitarioaren oinarria da, eta tresna horri esker, LMAUek populazio-talde jakin batzuei edo komunitateari zuzendutako osasuna sustatzeko jardueren urteko programazioa izango dute, osasun komunitarioari dagokionez duten helburua edo misioa zehaztu ahal izateko. Aragoiko Osasun Sistemako Arreta Komunitarioko Estrategiaren tresna da, berez, Agenda Comunitaria izenekoa, gurera egokitu dena, lagungarria izan baitaiteke LMAUetan horrelako jarduerak planifikatzeko (41).

Baliabide horren diseinuak eta definizioak hausnarketa- eta lankidetzaren prozesu bat eskatuko du, helburu izanik LMAU diziiplina anitzeko lana sustatzea eta sektore arteko elkarlana bultzatzea, osasun-zentroak beste eragile batzuekin eta tokiko elkarte-sareko kideekin lankidetzan ari daitezela.

Koaderno Komunitarioan, LMAUtik egin beharreko jardueren programazioa ez ezik, inguruko erakundeek bultzatutakoak ere egongo dira, eta egutegi bat osatuko da, data zehatzetan jarrita osasunari lotutako gaiak buruz komunitatearentzat eskaintzen diren tailer, ikastaro, saio eta ekintza nabarmenak.

Koaderno Komunitarioa ez da soilik zentroan ordutegiak edo agendak banatzeko baliabide bat; izan ere, komunitateari zuzenduta LMAUtik sustatutako zerbitzuen zorroa osatzen duen tresnatzat hartu behar da, ikuspegi komunitariotik berrorientatzeko oinarria gisa.

### Koaderno Komunitarioaren eginkizunak


- Oinarrizko osasun-eremuko populazioaren ezaugarriak kontuan hartzea.
- Jarduerak eskariaren eta biztanleriaren ezaugarrien arabera bideratzea eta lehenestea.
- LMAUtik eskaintako osasuna sustatzeko jardueren eskaintza ikusgai jartzea.
- Beste erakunde edo organismo batzuek eskaintako osasuna sustatzeko jardueren eskaintza ikusgai jartzea.
- Sektoreartekotasuna eta sareko lana tokiko mailan sustatzea, eta aliantzak eta lankidetzaren lanak sortzeko aukera emango duten espazioak eta denborak programatzea.

### Koaderno Komunitarioa osatzeko elementuak

- Eremuaren testuinguru-azterketa. Biztanleriaren ezaugarriak eta osasunaren baldintzatzaile sozialak.

- LMAUan ikuspegi komunitarioarekin jorratu beharreko gaiak lehenestea.
- LMAUaren misioa eta urteko helburuak osasun komunitarioari dagokionez.
- Komunitateari zuzendutako osasuna sustatzeko esku-hartzeak eta jarduerak, LMAUtik sustatuak.
- Inguruneko beste eragile batzuen esku-hartzeak eta proiektuak osasuna sustatzeko.
- Osasun-zentroen eta beste eragile batzuen arteko harremanak (udaleko teknikariak, oinarrizko langileak, kaleko hezitzaileak, aldundia, elkarteak...).
- Eragin-eremuan tokiko gobernantza-sistemaren batean egotea eta parte hartzea.
- Zitazio-agenda eta zereginak banatzeko koadranteak antolatzea parte hartzen duten profesionalentzat.
- LMAUan lider gisa zuzendutako esku-hartzeen ebaluazioa, kontuan hartuta sektore bakarrean zein sektore artean sustatutako jardueren eta esku-hartzeen benetako erakartze- eta partaidetza-maila zein izan den, gogobetetasuna eta osasunean eragina duten beste emaitza-adierazle batzuk ere.

## Koaderno Komunitarioaren edukia



**20. IRUDIA:** AGENDA KOMUNITARIOAREN EDUKIA. ARAGOIKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO OSASUN-ZERBITZUKO ARRETA KOMUNITARIOKO ESTRATEGIA (41).

## **Koaderno Komunitarioetan jasotako informazioa zabaltea**

Koaderno Komunitarioan adostutako jarduera komunitarioen programazio guztia informazio-pantailetan egongo da ikusgai, osasun-zentrorra joaten den edonork ikus ditzan.

EK-k komunikazio eraginkorra bermatuko duten kanalak ezarriko dituzte, sare sozialak behar bezala eta modu eraginkorren erabiliz.



